


# Sektore Turistikoko ekimen berritzaileen katalogoa

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

EUSKO JAURLARITZA
EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

BASQUE TOUR
turismoaren euskal agentzia
agencia vasca de turismo

# Sektore Turistikoko ekimen berritzaileen katalogoa

Dokumentu honek Euskadiko berrikuntza sustatzen laguntzea du helburu. Horretarako, sarrera bat egin dugu **berrikuntzaren kontzeptua, haren zioa, eragiten dituen zailtasunak eta berrikuntzarako erabil ditzakegun informazio-iturriak** azaltzeko, betiere kanpo-lankidetzaren garrantzia gailenduz. Berrikuntza-motak zerrendatzeaz gain, berrikuntzak zerbitzuetan izan duen historia laburbildu dugu neurketa-adierazle berriak izan beharra sakontzeko; era berean, kudeaketa eta merkaturatze turistikoko joera berritzaileak zerrendatu ditugu.

Azterlana hiru kategoria hauetan banatutako **ekintza berritzaileen fitxa deskribatzailez** osatua dago: erdi-mailako, goi-mailako eta maila erradikaleko berrikuntza inkrementalak, betiere merkatuari dagokionez. Fitxa horien xedea erreferentzia berritzaileak ateratzea da, baita horiek behar duten ezarpen-kostuari eta -denborari buruzko mapa bat marraztea ere. Dokumentuaren amaieran **autoebaluazio** bat eskaintzen zaie sektore turistikoko eragileei beren gaur egungo egoera berritzailea aztertzeko, ezarri nahi dituzten ideien lehenespena adierazteko eta hautatutako ideien ezarpen-jarraipenerako tresna bat finkatzeko.

# Aurkibidea


| | | |
|---|---|---|
| 1 | Sarrera | **4. or.** |
| 2. | Fitxak nola irakurri | **13. or** |
| 3. | Berrikuntza inkrementaleko neurriak erdi-mailako merkatuari dagokionez | **15. or.** |
| 4. | Berrikuntza inkrementaleko neurriak goi-mailako merkatuari dagokionez | **50. or.** |
| 9. | Berrikuntza erradikaleko neurriak | **84. or.** |
| 10. | Autoebaluazioa | **104. or** |
| 11. | Bibliografia | **109. or** |



# 1. Sarrera

## Zer da berrikuntza

Berrikuntza hainbat modutara definitu daiteke. Esparru honetan erreferentea den Joseph Schumpeter (1883-1950) ikerlariaren arabera, **produktu berriak**, **ekoizpen-prozesu berriak**, **merkatu** berriak, **lehengai** berriak eta **antolakuntza**-mota berriak sartzea da berrikuntza. Aldaketa horiek kualitatiboki garrantzitsuak diren konbinazio berriak txertatzen dituzte; horiek enpresa-buruzagiek edo pertsona berritzaileek gauzatzen dituzte, arriskuak bereganatuz. Aldaketa horiek azken kontsumitzaileek epaituko dituzte azken batean (Decelle, 2004).




# Zergatik egin berrikuntzak; zailtasunak eta informazio-iturriak

| Arrazoiak | Zailtasunak | Informazio-iturriak |
|---|---|---|
| • Bezeroen premiak asetzea<br>• Zerbitzuaren kalitatea hobetzea<br>• Enpresaren irudia hobetzea<br>• Erregulazio berriak betetzea<br>• Produktibitatea igotzea<br>• Merkatuko kuota handiagoa lortzea<br>• Errentagarritasuna handitzea<br>• Lehiakortasuna hobetzea | • Langile kualifikatuen gabezia<br>• Jarduketa publikoa<br>• Kostu handia<br>• Enpresaren tamaina<br>• Barne-erresistentziak<br>• Finantziaziorik eza<br>• Berrikuntzetara egokitzeko denborarik eza | • Zuzendaritza<br>• Langileak<br>• Bezeroak<br>• Pertsona eta enpresa hornitzaileak<br>• Unibertsitateak<br>• Ikerketa-institutuak<br>• Lehia<br>• Azokak eta kongresuak |
| Iturria: Jacob (2004) | | |



# Lankidetzan jarduteak berrikuntzarako duen garrantzia

Kanpoko informazio-iturriei esker, enpresa guztiek dituzten **barneko gabeziak** estaltzen dira (Grant, 2004). Oso garrantzitsua da beste enpresa edo erakunde batzuekin lankidetzan jarduteko jarrera irekia izatea, horien kanpoko ezagutza-fluxuek enpresaren beraren **ezagutza-oinarria areagotzeko** aukerak eskain baititzakete bere lehiakideenekin alderatuta. Horrek enpresaren **malgutasuna areagotzen** du eta, informazio hori bereganatzeaz gain, hura onartzea, eraldatzea eta aplikatzea ahalbidetzen du, informazio hori ezagutza eta berrikuntza bihurtuz.



# Berrikuntza-motak

| Xedea | Berritasun-maila | Eremua |
| --- | --- | --- |
| • Produktua edo zerbitzua<br>• Prozesua<br>• Merkaturatzea<br>• Barne-antolamendua<br>• Kanpo-antolakuntza edo kanpoko eragileekin harremana<br>• Merkatua edo merkatu-segmentua | • Inkrementala merkatuari dagokionez<br>    • Ez oso berria<br>    • Ertaina<br>    • Handia<br>    • Oso handia<br>• Erradikala merkatuari dagokionez: sektoreko praktika nagusietan funtsezko aldaketa bat gauzatzen denean | • IKT<br>• Segurtasun-sistemak<br>• Ingurumena<br>• Sukaldea<br>• Jantokiak eta tabernak<br>• Garbiketa-sistemak<br>• Osasuna eta nutrizioa<br>• Harrera |

Iturria: Jacob (2004)



# Zerbitzuen sektoreko berrikuntzaren historia

| Denbora- | Ikuspegia | Berrikuntzaren egoera zerbitzuen sektorean |
|---|---|---|
| 80ko hamarkadara arte | Hasierako egoera | Ez zen zerbitzuen jarduera berritzailea aztertu, horiek nulutzat jotzen baitziren |
| 90eko hamarkadaren hasiera | Menderakuntza | Zerbitzuen sektoreak industrian gertatutako berrikuntza hartzen zuen bere gain |
| 90eko hamarkada amaiera | Autonomia | Zerbitzuak horien izaera ukiezin, iragankor eta berehalakoagatik nahiz giza eta antolakuntza-faktorearen garrantziagatik bereizi ziren |
| Gaur egun | Oharpena | Zerbitzuetako berrikuntzaren izaera bereizlearen ebaluazio mugatuagoa |
| Iturria: Coombs eta Milles (2000) | | |



# Adierazle berrien beharra

Zerbitzuen sektoreak industriak baino berrikuntza teknologiko txikiagoa izan dutela frogatzen dute zenbait azterlanek (Camisóna eta Monfort, 2012). Desberdintasun horiek ez dira horren esanguratsuak berrikuntza orokorren ezarpenari dagokionez, zerbitzuetan **antolakuntza-metodo berrien eta produktuen sustapenerako bide berrien sorkuntzari** dagokionez egin baitira berrikuntza gehienak, industrian baino are gehiago (Arundel eta Kanerva, 2007). Zerbitzuak eta industria bereizten dituzten ezaugarriak direla-eta −I+G jardueraren eginkizuna, ekintza zehatz batzuk patentatzeko ezintasuna−, **zerbitzuetako berrikuntza metodo eta adierazle berriekin aztertu behar da** (Orfila eta beste batzuk, 2009). Horiek zehaztea oso garrantzitsua da, besteak beste, enpresa turistikoetako berrikuntza-maila neurtzeko.

# *Innovation Union* indizea

Europako Batzordeak berrikuntza herrialde desberdinetan islatzeko interesa agertu du, eta horregatik, urtero "*Innovation Union*" indizea sortzen da, hiru adierazle-mota eta zortzi dimentsio barne hartzen dituena, eta guztira, hogeita bost adierazlez osaturik dagoena.

Hari esker, eremu geografikoen arteko berrikuntza alderatzeko zein elementu neurtu behar diren jakin dezakegu; dena den, maila mikroekonomikoko −enpresa turistikoen artean, adibidez− konparazioa beste adierazle espezifiko batzuekin egingo litzateke.

Adierazle horiek erreferentzia gisa hartu dira sektore turistikorako praktika berritzaile egokiak hautatzeko orduan. Horrela, sektorearen prestakuntza hobetzera (2.1.), merkaturatze-bide berrien erabilerara (3.2.4) edo produktuetan berrikuntzak txertatzera (3.1.1) xedaturiko ekintzak gaineratzen dira.

*Innovation Union Scoreboard* 2013 azterlana eta metodologia:

http://ec.europa.eu/enterprise/policies/innovation/files/ ius-2013_en.pdf

| |
|---|
| **ENABLERS** |
| **Human resources** |
| 1.1.1 New doctorate graduates |
| 1.1.2 Population completed tertiary education |
| 1.1.3 Youth with upper secondary level education |
| **Open, excellent and attractive research systems** |
| 1.2.1 International scientific co-publications |
| 1.2.2 Scientific publications among top 10% most cited |
| 1.2.3 Non-EU doctorate students |
| **Finance and support** |
| 1.3.1 R&D expenditure in the public sector |
| 1.3.2 Venture capital investments |
| **FIRM ACTIVITIES** |
| **Firm investments** |
| 2.1.1 R&D expenditure in the business sector |
| 2.1.2 Non-R&D innovation expenditure |
| **Linkages & entrepreneurship** |
| 2.2.1 SMEs innovating in-house |
| 2.2.2 Innovative SMEs collaborating with others |
| 2.2.3 Public-private co-publications |
| **Intellectual Assets** |
| 2.3.1 PCT patent applications |
| 2.3.2 PCT patent applications in societal challenges |
| 2.3.3 Community trademarks |
| 2.3.4 Community designs |
| **OUTPUTS** |
| **Innovators** |
| 3.1.1 SMEs introducing product or process innovations |
| 3.1.2 SMEs introducing marketing/organisational innovations |
| 3.1.3 Fast-growing innovative firms |
| **Economic effects** |
| 3.2.1 Employment in knowledge-intensive activities |
| 3.2.2 Contribution MHT product exports to trade balance |
| 3.2.3 Knowledge-intensive services exports |
| 3.2.4 Sales of new to market and new to firm innovations |
| 3.2.5 License and patent revenues from abroad |

# Armiarma-sare itxurako grafikoa

*"Innovation Union"* indizeak erabilitako grafikoak berrikuntza arloan liderrak diren eremu geografikoak bereiztea ahalbidetzen du, horiek jarraitzaileak, neurrizkoak edo xumeak izan, betiere indizean lortutako puntuazioaren arabera.

**Figure 8: Country groups: innovation performance per dimension**




Europako Berrikuntza Adierazleen Panelaren arabera −*Innovation Union Scoreboard IUS 2014*−, Euskadi berrikuntza-maila altuko herrialdeen multzotik oso gertu mantentzen da. 2013. urteari dagokionez, Euskadiko puntuazioak 0,50eko balioa lortu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan, betiere Eustatek landutako datuen arabera; hori dela-eta, EB-27ko batez bestekoa baino sei ehunen beherago −0,56ko balioa− eta berrikuntza handiko herrialdeen multzoa baino ehunen bat beherago kokatzen da.




# Tendencias innovadoras

| | | |
|---|---|---|
| **Gestión** | | |
| • Simuladores virtuales<br>• Tecnología audiovisual interactiva<br>• Habitaciones inteligentes<br>• Dispositivos arduínos<br>• Gestión de memorias digitales | • Identificadores digitales<br>• Vigilancia avanzada<br>• Información ubicación huésped<br>• Reconocimiento de voz | • Tecnología ambiental<br>• Pilas de hidrógeno<br>• Tri-generación<br>• Detección de emisiones CO2<br>• Tecnología en la ropa |
| **Comercialización** | | |
| • Web semántica<br>• Sistemas de captura de datos<br>• Realidad virtual<br>• Nuevos buscadores<br>• Disminución de los costes de *roaming* | • Análisis de la competencia<br>• Billetes móviles<br>• Móvil monedero<br>• Gestión del rendimiento (*yield management*)<br>• Marketing de proximidad | • Seguimiento de la marca<br>• Aplicaciones guías personales<br>• Información personalizada<br>• Personalización servicios<br>• Marketing experiencial |
| Fuente: González (2010), XV Congreso internacional de turismo (Universidad Jaime I, 2012) | | |



2. Fitxak nola irakurri

# AZPISEKTOREA

## Eragin-eremua

## Ideiaren izenburua

### Ideiaren azalpen laburra

Ideia hau ezarri duten erakundeei edo norakoari dagozkion erreferentziak; oro har, izena eta URLa agertuko dira.

**Deskribapena**

Ideiaren azalpen sakonagoa, haren erabilera eta funtzionamendua azpimarratuz.

**Berrikuntza-mota: estrategikoa edo taktikoa**

- Ideia hori ezartzearen onurak

| Kostu ekonomikoa * | Ezarpen-denbora* |
|---|---|
| ● ● ○ | ● ● ○ |

*Obaloak urdinez koloreztatuta agertzen dira kostuaren arabera: Baxua Ertaina Altua
Ezarpen-denbora: <3 hilabete 3-6 hilabete >9 hilabete

**Oharrak:** Erreferentziazko enpresek gauzatutako zenbait ezarpen-aukera, onura, langileria-kostu edo adibide gailentzen dira.

# 3. Berrikuntza inkrementaleko neurriak erdi-mailako merkatuari dagokionez

# Erdi-mailako eta azpisektoreko (I) ideia berritzaileen zerrenda



| Erdi-mailako inkrementala | Aplikazio-azpisektore potentzialak | Orrialdea |
|---|---|---|
| Tri Run | Norakoak Agentziak. Ostatuak | 18 |
| Binaka | Era guztietako enpresak | 19 |
| Bilerak arintzea | Ostatuak. Kongresuen antolatzaile profesionalak. Gidak | 20 |
| Basque Design | Norakoak. Saltokiak. Agentziak. Kongresuen antolatzaile profesionalak. Gidak | 21 |
| Poteoaren aipamen berezia | Tabernak eta jatetxeak. Norakoak. | 22 |
| Channel Manager | Ostatuak | 23 |
| Online merkaturatzea | Zerbitzu turistikoen enpresak | 24 |
| Tokiko hornitzaileak | Tabernak eta jatetxeak. Ostatuak. Saltokiak | 25 |
| Whatsapp bidezko harreman zuzena | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 26 |
| Hiria edertzea | Norakoak | 27 |
| LinkedINeko Euskadi MICE foroa | Agentziak. Kongresuen antolatzaile profesionalak. Norakoak | 28 |
| Euskadi on Sports | Norakoak. Gidak. Agentziak. Ostatuak | 29 |
| Chefaren baratzea | Tabernak eta jatetxeak | 30 |
| I like the Basque Country | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 31 |
| Dendak hotelean | Ostatuak | 32 |
| Sukaldaritza tradizionala | Tabernak eta jatetxeak. Ostatuak | 33 |
| Erakusketa eta merkatu ibiltariak | Ostatuak. Saltokiak. Norakoak. Gidak | 34 |
| Neuromarketina | Tabernak eta jatetxeak. Saltokiak. Turismo-bulegoak. Ostatuak | 35 |
| Lasterketa herrikoien merchandising-a | Turismo aktiboa. Kongresuen antolatzaile profesionalak Norakoak | 36 |
| Hilabete gastronomikoa | Tabernak eta jatetxeak. Ostatuak. Norakoak | 37 |

# Erdi-mailako eta azpisektoreko (eta II) ideia berritzaileen zerrenda


| Erdi-mailako inkrementala | Aplikazio-azpisektore potentzialak | Orrialdea |
|---|---|---|
| Zerbitzu osagarriak | Ostatuak | 38 |
| *User generated content* | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 39 |
| Sare sozialen optimizazioa | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 40 |
| Online ospearen kudeaketa | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 41 |
| *Router* eramangarria | Ostatuak. Gidak. Kongresuen antolatzaile profesionalak. Ekitaldiak | 42 |
| Maskotentzako zerbitzuak | Ostatuak. Tabernak eta jatetxeak. Saltokiak. Museoak. LANE | 43 |
| *Show cooking* | Tabernak eta jatetxeak | 44 |
| Ondare-izaerako bira | Gidak. Agentziak. Norakoak | 45 |
| 3 Pack | Agentziak.  Ostatuak | 46 |
| Hirien Hiruko Packa | Agentziak. Museoak. Ostatuak. Saltokiak. Jatetxeak. Gidak | 47 |
| Jatetxeen Hiruko Packa | Jatetxeak. Gidak. Ostatuak. Agentziak | 48 |
| Ostatuen Hiruko Packa | Ostatuak. Agentziak | 49 |

INSTITUZIONALA

# Tri-Run

**MARATOIETARAKO IZEN-EMATEA, GARRAIOA ETA OSTATUA BARNE HARTZEN DITUEN PACKA**

Euskadiko lasterketa profesionalak eta amateurrak

**Deskribapena**

Zalantzarik gabe, une honetan gehien hazten ari den segmentuetako bat *running*-arekiko afizioa da. Euskadik lasterketa herrikoien aukera zabala eskaintzen du gaur egun, eta gainera, horiek ospe handia dute horien antolakuntza eta babesa dela eta. 3Run aintzatespen ofiziala hiru maratoi edo maratoi-erditan edo antzekoetan parte hartzean lortuko litzateke. Hura nazioartean merkaturatuz gero, hiru lehiaketatan parte hartzeko izen-ematea eta hotel egokiak barne hartzen dituen pack bat eskainiko litzateke.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Benetako eskaera bati erantzutea
- Balio erantsiko eskaintza sortzea
- Euskadi norako osasungarri gisa kokatzea

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

3-6 hilabete

**Onurak**

Bereizkuntza eta diru-sarreren igoera. Desestazionalizatzea



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Binaka

## DESKONTUAK ESKAINTZEKO LANKIDETZA

Euskadi

**Deskribapena**

Euskadirako garapen turistikoko helburuetako bat gastua areagotzea denez, ekintza honen bidez euskal norakoetako enpresen arteko salmenta gurutzatua sustatu nahi da, "Binaka" programaren babespean. Tabernak, ostatuak, jarduera-enpresak eta jatetxeak bateratzea izango litzateke xedea, Euskadiko beste hiri batzuetara doazen bisitariei deskontuak eskaintzeko.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Norakoen inbrikatze handiagoa
- Touring-eko bidaiariei beste aukera batzuk ezagutaraztea
- Eskaintza pribatuaren integrazio handiagoa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ ■ □ 3-6 hilabete |

**Onurak**

Diru-sarreren gehikuntza. Asebetetze-mailaren gehikuntza. Batez besteko egonaldiaren gehikuntza.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Bilerak arintzea

## BILEREN ARTEKO JARDUERA-ZERBITZUA, PRODUKTIBITATEA AREAGOTZEKO

Joie de Vivre, the Joie of Meetings program:
http://www.jdvhotels.com/meetings-and-events/meetings/joy-of-meetings

### Deskribapena

Bileren arteko arintze-zerbitzua negozio-izaerako egonaldietan. Jarduera horiek bileren aurretik, bitartean eta ondoren eskaintzen dira serotonina eta produktibitate-mailak nahiz talde-kohesioa areagotzeko helburuarekin.

Jarduera horien artean, honako hauek topatu ditzakegu: tokiko merkatu batean lan-taldearekin batera gosaltzea nahiz bileren arteko erlaxazio-ariketak, hala nola, yoga, meditazioa, estresaren aurkako dinamika dibertigarriak, zuhaitz bat landatzea, edo bilera amaitu ostean aire zabalean izozki bat edo edari bero bat hartzea.

### Berrikuntza estrategikoa

- Enpresentzako ostatu gisa kokatzea
- Ostatuaren irudia hobetzea
- Salmentak areagotzeko aukera, lan-erretiroak eta abar eskaintzen baitira

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ ■ ■ >6 hilabete |

### Onurak

Diru-sarreren gehikuntza. Bereizkuntza. Posizionamendua.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




## INSTITUZIONALA

# Basque Design

### ESKADIKO DISEINUAREN LIDERGOARI DAGOKION IBILBIDEA

Chicago Arquitecture Foundation https://tickets.architecture.org

**Deskribapena**

Euskadiren beste alderdi erakargarrienetako bat arkitekturako profesionalentzat interes handikoak diren eraikin tradizional edo modernoen eskaintza zabala da. Era berean, Euskadi diseinu industrial, moda, arte eta abarretan agertzen diren korronte berrien egoitza da. Sormen aplikatuko amalgama horrek guztiak potentzial handiko baliabide bat irudikatzen du aldi berean, Estatutik kanpoko erosahalmen ertain-altuko bisitarientzat bereziki, euskal turismoaren xede direnak, hain zuzen. Gainera, espezializazio eta balio altuko produktu-mota horretan espezializatutako operadoreak daude.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Marjina altuko hobi-produktuen sorkuntza
- Gastu altuko nazioarteko merkatuen aldeko apustua
- Kolektibo kultural eta artistikoen txertaketa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ● ○ 3-6 hilabete |

**Onurak**

Bereizkuntza. Diru-sarreren gehikuntza. Desestazionalizazioa. "Euskadi. Basque Country" marka sendotzea



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Pintxo-barra onenari saria

## PINTXOEN ARGAZKI-LEHIAKETA, INSTAGRAM BIDEZ

Nespressoren Crealto lehiaketa
http://instagramers.com/news/nespresso-

**Deskribapena**

Gaur egun, gastronomia da Euskadiko erakargarri edo erreferente turistikorik handiena. Mikrogastronomiaren kontzeptuak, hau da, "pintxoak" eta poteoa –"pintxopote" konbinazioa–, Estatuko nahiz nazioarteko bisitariak erakartzen ditu. Horrela, baliabide hori sare sozial garrantzitsuenetako batekin konbinatuta –Instagram–, "Poteoaren Nazioarteko Aipamena" egitea proposatzen da; hura tabernetako pintxo-barren argazkiak Instagramera igo ostean lortuko litzateke. Argazkiek etiketa alegorikoren bat izan beharko dute, #PintxoUniver- sal, adibidez. Ziurtagiria eta sariak kategoriaren arabera entregatuko litzaizkioke argazki gehien eta politenak, artistikoenak... igotzen dituen pertsonari.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Euskadiko erakargarri turistiko nagusietako bat Instagramera eramatea.
- Bisitariek sortutako edukiaren sustapena
- Euskal ohituren sustapena

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ○ ○ <3 hilabete |

**Onurak**

Bereizkuntza. Marka eraikitzea. Diru-sarreren gehikuntza. Komunikazioa aurreztea. Norakoarekiko lotura emozionala



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.





SEKTORIALA

# Channel manager

**LANDA IZAERARIK GABEKO OSTATUETAN CHANNEL MANAGER SOFTWAREA ERABILTZEA**

Micros www.micros.com
Techtur www.techtur.com
Pegasus www.pegs.com
Beonprice www.beonprice.com

## Descripción

Munduko logelen online banaketa eta ikusgarritasuna optimizatzen duen tresna informatikoa. Interfaze bakar batetik, ostatuaz arduratzen den pertsonak bere banaketa-kanalak kudeatzen ditu (OTA, IDS, GDS, Corporate eta abar); horrek inbentarioaren kudeaketa eta merkaturatzea errazten ditu, gainerreserba-arriskua saihesten du, etekinaren kudeaketa, tarifa hobeen nahiz horien parekotasuna errazten ditu, eta merkatu berrietara irekitzea laguntzen du, okupazioa nabarmen handituz. Teknologia horren erabilera hotel edo kate handiek bakarrik erabiltzen zuten lehen, baina erabilgarriagoa eta arruntagoa da gaur egun hotel eta kate txikien errentagarritasuna areagotzeko.

**Berrikuntza taktikoa**

- Errendimendua hobetzea
- Denborak aurreztea
- Kostu eragileak murriztea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■■■ | ■■□ <6 hilabete |

**Onurak**

Diru-sarreren gehikuntza. Kostuak aurreztea.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




**ENPRESARIALA**

# *Online* merkaturatzea

**ZERBITZU TURISTIKOAK *ONLINE* MERKATURATZEA**

Vayable, Viator edo Trip4Real
https://www.vayable.com/experiences/search

## Deskribapena

Zerbitzu turistikoetako mikroenpresen arazo nagusietako bat merkaturatzea da. Gaur egun zerbitzu turistiko "solteak" *online* saltzen dituzten hamarka plataforma daude; horiek tokiko ikuspegi singularra izaten dute, eta nazioarteko bezeroei xedaturik egoten dira. Plataforma horietako askok aplikazio mugikorrak izaten dituzte, jomugako salmenta erraztuz. Horiek doako erregistroa eta salmenta-komisioa izaten dituzte (% 10etik gora).

## Berrikuntza estrategikoa

- Merkatura iristen den produktuaren sormena
- Nazioarteko ikuspegia
- *Online* merkaturatzea eta markaren eraikuntza

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

<3 hilabete

## Onurak

Salmenta eta diru-sarreren igoera. Bitartekotza-kostuak aurreztea. SEO




SEKTORIALA

# Tokiko hornitzaileak

## TOKIKO PRODUKTUAK URTE OSOAN ZEHAR ERABILTZEA

Slow Food mugimendua, KM0 www.slowfood.com

### Deskribapena

Slow Food janari azkarraren hedapenari aurka egiten dion nazioarteko mugimendu bat da, sukaldaritza arloko ondarea, ohiturak eta kultura babesten dituena. "KM0" kulturaren arabera, hornitzaileek −nekazaritzako elikagaien hornitzaileek bereziki− 100 km baino gutxiagora egon behar dute, abiapuntu gisa (edo km0) negozioa bera kontuan hartuta. Horrela, tokiko produktuen kontsumoa eta balioa sustatu nahi dira, euskalduna denaren berezitasuna eta funtsa azpimarratuz, eta Euskadiko enpresa eta hornitzaileek beren merkataritza-harremanak sendotzeko kluster bat sortuz.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ingurumen-jasangarritasuna areagotzea
- Tokiko preskribatzaileak areagotzea
- Irudia hobetzea

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

3-6 hilabete

### Onurak

$CO_2$ isurketak imitatzen dira. Bereizkuntza. Diru-sarreren gehikuntza. Posizionamendua.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Zuzeneko harremana

## COMUNICACIÓN CON WHATSAPP CON LA CLIENTELA

**Oceanbooking**
http://www.oceanbooking.com

### Deskribapena

Whatsapp munduan gehien erabiltzen diren bost plataforma sozialetako bat da dagoeneko. Haren erabilera errazak eta azkartasunak zuzeneko harremana ahalbidetzen du, bezeroek eta enpresak (edo norakoak) denbora errealean hitz egitea ahalbidetuz. Whatsapp bidez zalantzak erantzun, erreserbak onartu, kokapen-datuak, argazkiak, bideoak eta tarifak bidali... daitezke. Une hauetan, komunikabide zuzen, berehalako eta azkarrena da, eta gainera, ez du gastu esanguratsurik eragiten.

### Berrikuntza estrategikoa

- Bezeroekin komunikabide berri bat txertatzea
- Modernotasun-irudi bat helaraztea
- Negozioaren datu eta eduki gehiago eskuratu ahal izatea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●○○ | ●○○ <3 hilabete |

### Langileen kostuak

Jakinarazpenak eta eskaerak bide honen bitartez jasoko direla bakarrik jakinarazi behar zaie langileei, horretarako prestatzeaz gain.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Hiria edertzea

## HIRIEN EDERTASUNA SUSTATZEA

Villes Fleuries
www.villes-et-villages-fleuris.com

**Deskribapena**

Euskadin udalerriak eta ingurune turistikoak edertzeko egiten ari diren lanekin jarraitu behar da. Herri batzuen edertasun naturala zaindu eta hobetu egin behar da, horretarako laguntzen eta programen bitartez. Argiztatze artistikoak edo lorategiek, adibidez, erreferente bihurtu ditzakete Euskadiko herriak. Zentzu horretan, Frantziako udalerri "loretsuen" sarea gailentzen da, zenbait maila, urteko sari eta abar zehazten dituena.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Euskadiko "ikono" eta postalak ugaritzea
- Bisitariek sortutako edukia sustatzea
- Euskadi "herri politak" dituen norako gisa kokatzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●● | ●●● |

**Onurak**

Kokapena. Desestazionalizazioa. Sustapen-gastuak aurreztea.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




# AGENTZIAK, KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK, NORAKOAK

**INSTITUZIONALA**

## Linkedineko Euskadi MICE foroa

**EUSKADI, KIROL-EKITALDIEN NORAKOA**

Praga The MICE Destination
www.linkedin.com/groups/PRAGUE-MICE-DESTINATION-3931516

### Deskribapena

Facebook, Pinterest edo Instagram oso sare sozial erabilgarriak dira oporretarako norakoak sustatzeko, baina LinkedIn da MICE norakoak sustatzeko sarerik interesgarriena. Dagoeneko profil ofiziala duten hainbat Convention Bureaux daude, baita ekitaldi, hotel, kokapen, egoitza eta abarren eskaintza ezagutzera ematen duten Taldeak sortu dituzten beste batzuk ere. Horrenbestez, sare sozial honetan Euskadi ekitaldietarako jomuga gisa sustatzeko Praga hartuko da adibidetzat.

**Innovación estratégica**

- Edukia sortzea, SEO
- Inspirazioa
- Gaur egungo norako gisa duen posizionamendua

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●○○ | ●○○ <3 hilabete |

**Onurak**

Sustapen-gastuak aurreztea. Posizionamendua. SEO. Trafikoa.



# NORAKOAK, GIDAK, AGENTZIAK, OSTATUAK

## INSTITUZIONALA

# Euskadi on Sport

**EUSKADI, KIROL-EKITALDIEN NORAKOA**

Katalunia
http://www.catalunya.com/what-to-do/sport / http://www.nirvanaeurope.com/

### Deskribapena

Euskadin oso zabala eta askotarikoa da urte osoan zehar ospatzen diren kirol-ekitaldien eskaintza. Lehiakortasun handiko ekitaldiak eta euskal kirol tradizionalekin loturiko kirol-ekitaldiak, bereziki, oso interesgarriak izan daitezke kirol-zaletasuna duten pertsonentzat. Produktu horiek atari turistikoaren bitartez sustatu edo produktu gisa merkaturatu daitezke, bidaia-agentzien eta ohiko kanalen bitartez.

### Berrikuntza estrategikoa

- Kirol-norako gisa duen posizionamendua
- Balio tradizionalen sustapena
- Elementu bereizlea

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

>6 hilabete

### Onurak

Desestazionalizazioa. Diru-sarreren gehikuntza. Posizionamendua. Web trafikoa.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# ENPRESARIALA

## Chefaren baratzea

**ESTABLEZIMENDUEN LABORANTZARAKO GUNEA**

Hotel Botánico Tenerife www.hotelbotanico.com Azurmendi Jatetxea. Larrabetzu (Bizkaia)

### Deskribapena

Ingurumen-jasangarritasunaren sustapena eta ohituren transmisioa, Euskadiko barazki autoktonoen edo belar aromatikoen lorategi bat baitugu, ikerketa- eta mantentze-programak garatuz. "Chefaren baratzea" promozio-kanpaina abiarazi daiteke sukaldaritzan erabiltzen diren landaketak eta elikagaiak ezagutzera emateko, betiere bezeroek aldagai desberdinak ezagutu ditzaten, horien seinaleztapen egokia eginez.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ingurumen-jasangarritasuna hobetzea
- Ostatuaren irudia hobetzea
- Eragiketa-kostuak murriztea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●○ | ●●○ <6 hilabete |

### OHARRAK

Jatetxe, taberna eta abarren artean sinergiak bilatzea.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

# MOTA GUZTIETAKO ENPRESAK ETA NORAKOAK



## INSTITUZIONALA

# I like the Basque Country

**FACEBOOK-EKO ORRIETAN "BASQUE COUNTRY" MARKA SUSTATZEA**

Facebook
https://www.facebook.com/EmbajadoresEuskadi

### Deskribapena

"I like the Basque Country" logotipoaren eta lemaren erabilera sustatzea Euskadiko norako eta enpresa guztiek dituzten Facebook-eko orrietan. Pixkanaka, irudi korporatibo berria barneratzen eta lurraldearen marka eraikitzen joango da, eta bisitariek logotipoa errazago ezagutu dezaten.

### Berrikuntza estrategikoa

- Biralizazioa
- Marka eraikitzea
- Sustapenean esku-hartze publikoa eta pribatua izatea

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

>6 hilabete

### Zailtasunak

Ekintza honek zenbagarriak diren helburu batzuk definitu beharko ditu aldez aurretik; gainera, horien jarraipena eta monitorizazioa egin beharko da.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Hoteleko dendak

**SALTOKIEK HORIEN ORDUTEGITIK KANPO GAUZATZEN DITUZTE SALMENTAK HOTELETAN**

Hotelek beren opari-dendak berritu dituzte
[www.online.wsj.com/news/articles](www.online.wsj.com/news/articles)

### Descripción

Gaur egun saltokiak jartzen dira hoteletan, eta hotel handietan, baita merkataritza-zentroen tankerako saltokiak ere, hotelaren lehen solairuan; horrela, tokiko bezeroak nahiz turistak erakartzen dituzte. Saltoki horiek merkataritza-ordutegitik kanpo ireki daitezke (goizeko 7etatik 10etara edo gaueko 9etara) ostalarientzat; kasu horietan lokalaren zenbatekoa kobratzen zaie.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ostatuaren irudia hobetzea
- Salmenta gurutzatuak areagotzea
- Diru-sarreren gehikuntza

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●○ | ●●○ <6 hilabete |

### Dendetako jarduerak

Enkanteak, salmentarako laguntzaile pertsonalak hoteleko bezeroentzako doako zerbitzu gisa, estilistak nahiz moda-desfileak.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Sukaldaritza tradizionala

## EUSKAL PLATER TRADIZIONALEZ OSATURIKO MENUAK URTE OSOAN ZEHAR

Palamós-eko itsas menuak http://es.visitpalamos.cat/que-hacemos/gastronomia/

### Deskribapena

Euskadi bisitatzen duten pertsonen motibazio nagusia hark eskaintzen duen gastronomia tradizionala da. Dena den, norako gehienetan ikuspegia ez da turistikoa, eta ez da ohiko platerak dastatzeko nahi hori kontuan izaten, ezta denboraldia ez denean ere. Hori behar bezala islatzen da fabada edo paella jaten duten turistengan. Euskal plater tradizional nagusien aukeraketa bat planteatu daiteke sasoi bakoitzeko, horiek ahalik eta jatetxe gehienetan turisten eskura jarriz.

### Berrikuntza estrategikoa

- Balio erantsia gastronomiarekiko interesa duten bisitarientzat
- Urteko sasoiekin bat etor daitezela
- Tokiko hornitzaileak gehiago txertatzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●● >9 hilabete |

### Onurak

Diru-sarreren gehikuntza. Posizionamendua. Sustapen-kostuetan aurreztea. Engagement.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




SEKTORIALA

# Erakusketa eta merkatu ibiltariak

## EUSKADIKO PRODUKTU TIPIKOAK SUSTATZEA

NH Hoteles
www.corporate.nh-hoteles.es/es/sobre-nh/historia

### Deskribapena

Tokiko artisau, artista eta merkatariekin gauzatzen den lankidetza puntako praktika da gizarte-jasangarritasunaren esparruan; dena den, berrikuntzak egiten eta lankidetza-ideia berriak egiten jarraitu daiteke arlo horretan. Euskadiko ohiko produktuak eta oso jarduera erakargarriak barne hartuko dituen merkatu ibiltari bat sortzea, ostatu eta gida turistikoetan ikusi ahal izango den egutegi baten arabera hotelez hotel gauzatuko dena; horrela, bidaiariek behar bezala ezagutuko dituzte ostatu eta produktu horiek.

### Berrikuntza estrategikoa

- Merkaturatzea hobetzea
- Tokiko preskribatzaile-kopurua handitzea
- Salmenta gurutzatuak areagotzeko aukerak handitzea

**Kostu ekonomikoa** ●●●

**Ezarpen-denbora** ●●● >9 hilabete

### Onurak

Merkatuaren ibilbidea hainbat lurraldetako hotelez osaturiko sare batean gauzatu daiteke, eta horiek gizarte-proiektu bateratuak izango dituzte



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

# HORECA, SALTOKIAK, TURISMO-BULEGOAK, OSTATUAK



INSTITUZIONALA

## Neuromarketina

**ESTILO EUSKALDUNEKO OROIGARRIAK**

Katalunia, “Ikono Kulturalak” proiektuak
http://www.txikito.es/

### Deskribapena

Euskadik ez du oraindik bisitariek nahitaez erosi beharreko edo oparietarako sustapen-artikulu edo -oroigarri definiturik. Euskadiren eta alderdi sentsorialaren arteko lotura estua dela-eta, diseinu berritzailea izango duten ohiko artikulu ofizialen sorta bat proposatu da. Kataluniak "Ikono Kulturalak" proiektua jarri zuen abian Ramblas pasealekuan saltzen ziren oroigarriak Kataluniako kulturarekin eta ohiturekin bat zetozen beste batzuekin ordezkatzeko helburuarekin.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ohiko oroigarriak bereiztea
- Norakoaren irudi txertatua hobetzea

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ● ● ● | ● ● ● >9 hilabete |

### Onurak

Diru-sarrerak areagotzea eta sustapen-gastuak aurreztea. Norakoarekiko lotura emozionala.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

# TURISMO AKTIBOA, KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK, NORAKOAK



## INSTITUZIONALA

# Lasterketa herrikoietako sustapen-artikuluak

**LASTERKETA ETA EKITALDI HERRIKOIEN ANTOLAKUNTZENTZAT**

Berlin
http://shop.scc-events.com/skating.html

### Deskribapena

Berlineko maratoiaren gisako lasterketa batzuetan, antolakuntzek lasterketarekin lotutako sustapen-artikuluen eta kirol-produktuen katalogo zabal bat eskaintzen dute; horrek korrikalariaren esperientzia aberasten du, norakoarekin eta bizitutako momentuarekin lotzen baitu. Hori are eraginkorragoa da lasterketa herrikoietan, eta antolakuntzaren markak duen irudia hobetzen du gainera. Berlineko maratoiaren adibidea ezin hobea da lasterketan eskain daitekeen guztia behar bezala ulertzeko.

### Berrikuntza estrategikoa

- Salmentak handitzea
- Marka eraikitzea
- Beste lasterketa / ekitaldi batzuekiko bereizkuntza

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●● | ●●● >9 hilabete |

### Erabilgarritasuna

Momentu batekin eta esperientzia garrantzitsu batekin lotzen zaituen elementua da, hura gogorarazten laguntzen duena.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Hilabete gastronomikoa

## HILABETE GASTRONOMIKOA, ARDOAREN HILABETEA, GAZTAREN HILABETEA EDO ANTZEKO KONTZEPTUAK

Berlin
http://shop.scc-events.com/skating.html

**Deskribapena**

Aukera gastronomikoa zabaltzeko helburuarekin, Kalifornian hilabete bat xedatzen da bertako jatetxeak sustatzera; horretarako, ibilbide gastronomikoak, deskontu bereziak eta publizitatea egiten dira gune publikoetan (autobus-geltokietan eta abar). Euskadin hilabete bat xedatu genezake itsasoko nahiz mendiko gastronomia, ardoa, sagardoa eta abar sustatzera. Horretarako, sustapen-kanpaina tematikoak egin beharko lirateke, hilabete bakoitzeko eduki espezializatuak sortuz.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Dibertsifikazioa
- Desestazionalizazioa.
- Jasangarritasuna

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ ■ □ | ■ ■ □ >6 hilabete |

**Onurak**

Diru-sarreren gehikuntza. Posizionamendua



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.





ENPRESARIALA

# Zerbitzu osagarriak

**ILE-APAINKETA ETA MAKILLAJEA LOGELA-ZERBITZU GISA**

Ile-apainketa ostatuan bertan www.lapeluqueriaadomicilio.com
Makillaje-zerbitzua ostatuan bertan www.maquillajeadomicilio.es

## Deskribapena

Zerbitzu osagarrien gehikuntzak hobetu egiten du hotelaren irudia eta bezeroen gogobetetasuna. Tokiko saltokien lankidetzan oinarrituz ile-apainketarako/makillajerako zerbitzuak eskaintzea −hotelak komisio bat irabaziko luke eskainitako zerbitzu bakoitzeko− erabilgarria izan daiteke ostalarientzat, hotelaren irabaziak handitzeaz gain.

Eskaintza berri hori erabilgarria izan daiteke, instalaziorik/aurrekonturik/langilerik ez izateagatik, *in-site* ile-apaindegirik ez duten baina beren irudiak kezkatzen dituen edo egoera berezietarako zerbitzu hori erabili nahi duten bezeroak dituzten ostatuentzat.

## Berrikuntza estrategikoa

- Bezeroaren gogobetetasuna hobetzea
- Irabazien marjina areagotzea
- Ostatuaren irudia hobetzea

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●○○ | ●○○ <3 hilabete |

## Langileen kostuak

Zerbitzu hau tokiko edertasun-saltokiekin lankidetzan jardunez eskaini daiteke.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




ENPRESARIALA

# Bisitariek sortutako edukia

**SARE SOZIALETAN SORTUTAKO EDUKIA SUSTATZEA**

**Last Minute Spontaneity Contest**
http://www.lovelivinglastminute.com/

## Deskribapena

Erabiltzaileek sortutako informazioak eduki-sorta zabala biltzen du eskuragarri dauden komunikabideetan. Erabiltzaileek edukiak argitaratzen, irakurtzen, editatzen... dituzten bitarteko digitalez ari gara, eta ez beste bitartekoez; horien artean ditugu, besteak beste, galdera/erantzunen datu-baseak, bideoak, blogak, foroak, podcastak, sare sozialak, argazkiak, wiki-ak eta enpresako web orrietako sekzio zehatzak.

## Berrikuntza estrategikoa

- Bisitariak promozioan inplikatzea:
- Ko-sorkuntza
- SEO errazten duen eduki-marketina

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●○○ | ●●○ 3-6 hilabete |

## Langileen kostuak

Sustapen-kostuak aurreztea. Posizionamendua. Norakoarekiko lotura emozionala



Ekintza … k kasu bakoit… plikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Sare sozialen optimizazioa

## PRESENTZIA AKTIBOA SARE SOZIALETAN ETA JARRAITZAILEEN KAPITALIZAZIOA

La Casa del Río Hotela
Villanova, Huesca www.lacasadelrio.com

### Deskribapena

Sare sozialetan presentzia aktiboa izatea –eduki interesgarria sortuz eta audientziarekin lotura emozionala sustatuz– estrategia eraginkorra da epe luzera. Epe motzera sarearen bidez zuzeneko erreserbak jasotzea zaila izan arren, etengabeko lanak eta presentziak bezero fidel asko lortzea ahalbidetzen dute. Teknologiak ere zuzeneko erreserbak egitea ahalbidetzen du (Facebook-en, adibidez, Booking-en aplikazioen bitartez), eta beraz, itzulkin onak lor daitezke. Horren adibide da Huescako La Casa del Río Hotela, familia-establezimendua, hark erreserben ehuneko handi bat jasotzen baitu Facebook bidez.

### Berrikuntza estrategikoa

- Edukiak SEO errazten du
- Lotura handiagoa ezartzen da bezeroekin
- Establezimenduaren ospean eragiten du

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ● ○ <9 hilabete |

### Onurak

Bitartekotza-kostuak aurrezten dira, baina egunerokotasuna behar da. Fideltasuna. Erreserben gehikuntza. Ahotik belarrira.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Online ospea

## ONLINE OSPEAREN MONITORIZAZIOA

Regina Hotela www.reginahotel.com
Hotel Auditorium www.hotelauditorium.com

### Deskribapena

Online ospea bezeroen fideltasuna areagotzeko eta marka eraikitzeko bide bat da, jakina. Oso gomendagarria da Euskadiko enpresek eta helbide turistikoek foro, sare sozial, blog eta abarretan beren markaren monitorizazioa egin dezatela, neurri batean, horrek ostatua, jatetxea edo norakoa aukeratzeko orduan eragiten baitu. Hori ordainpeko nahiz doako tresnen bitartez egin daiteke. Dena den, enpresa edo norako bakoitzaren marka behar bezala kontrolatzea erraztuko duten doako erreminta batzuk erabiltzen ikasteko prestakuntza espezifikoa eskaini beharko litzateke.

### Berrikuntza estrategikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Enpresa turistikoaren irudia hobetzea
- Ikusgarritasuna handitzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■□□ | ■■□ 3-6 hilabete |

### Langileen kostuak

Kostuak ez dira altuak, baina nolabaiteko jarraitutasuna behar da.



SEKTORIALA

# Bideratzaile eramangarria

Meliá ME Madrid Hotela http://wifimotion.com

**Deskribapena**

Internet izatea garrantzitsua da gero eta pertsona gehiagorentzat. Datuen tarifa bat izateak eragiten dituen kostuak altuak dira, bertakoak ez diren turistentzat batez ere. Horregatik, beren gailu mugikorretan kostu baxuko Internet eskaintzea balio erantsi bat da, Internet bidez norakoan esperientziak bilatzeko aukerak areagotzeaz gain. MiFi edo bideratzaile eramangarriek kalitate oneko konexioa ahalbidetzen dute zenbait terminaletan. Hotel-kate asko hura estra gisa eskaintzen hasi dira dagoeneko.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Balio erantsia, negozio-izaerako bisitarientzat bereziki
- Erabiltzaileak sortutako edukia sustatzeko laguntza
- Posizionamendu berritzailea lehiakideekin alderatuta

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

<3 hilabete

**Erabilgarritasuna**

Oso interesgarria litzateke euskal enpresentzako esparru-hitzarmenak bilatzea



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# OSTATUAK, JATETXEAK, SALTOKIAK, MUSEOAK, TURISMO-BULEGOAK, TABERNAK ETA ABAR

**ENPRESARIALA**

## Maskotentzako zerbitzuak

**ANIMALIEN ILE-APAINKETA, HEZIKETA ETA ZAINTZA**

---

TravelGuau www.travelguau.com
Joie de Vivre www.jdvhotels.com/programs/pet-friendly

### Deskribapena

Beren maskotekin bidaiatu nahi duten bezeroen segmentua gero eta handiagoa da, horiekin bidaiatzeko aukera zabalagoa dela eta. Gero eta hegazkin- eta tren-konpainia gehiagok eskaintzen dute aukera hori; gainera, gaur egun horrela garraiatzeko erraztasun gehiago eskaintzen dituzte. Segmentu hori beren animalien zaintzak kezkatzen dituen pertsonek osatzen dute oro har, eta beraz, horiek maskotentzako zerbitzu osagarrien onuradun izan daitezke: ile-apainketa, heziketa, berrikusketa, maskotaren zaintza egunean zehar, pertsona bidaiatzen ari den bitartean.

### Berrikuntza taktikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Bezeroaren gogobetetasuna hobetzea
- Hotelaren irudia hobetzea
- Fideltasuna

**Kostu ekonomikoa**: ●●○

**Ezarpen-denbora**: ●●○ 3-6 hilabete

### Segmentu horrekiko ikuspegia

Zenbait web orri daude maskotak dituzten pertsonentzat, eta horietan, egokitutako ostatuak eskaintzen dira.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



## ENPRESARIALA

# *Show cooking*

**IKUSKIZUNA SUKALDATZEN DEN BITARTEAN**

Protur Roquetas Hotel & Spa www.proturroquetashotelspa.com
Audax Hotela www.artiemhotels.com/en/audax-hotel/gastronomy

### Deskribapena

Show cooking ostalaritzaren sektorean gorantz doan joera bat da, euskal sukaldaritzaren kultura miresteko arte bat eta hura sustatzeko modu bat baita. Hura bereziki sustatu dezakegu sukaldean ospe handiko chef bat edo errezeta berezi bat dugunean.

*Show cooking* on bat gastronomiaz gozatzeko gonbidapen bat da, menua hautatzen denetik hura aurkeztu eta dastatzen den arte, eta horrenbestez, urrats horietako bakoitzean elementuak gehitu daitezke; gainera, jardueraren biralizazioa sustatu daiteke sare sozialen bitartez, argazkiak, bideoak edo oharrak erabilita.

### Berrikuntza taktikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Ostatuaren irudia hobetzea
- Ostalariaren gogobetetze-maila areagotzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■ □ □ | ■ □ □ 3-6 hilabete |

### Sustatzeko aukerak

Ostalariak bere bikotekideari/familiari "zuzeneko menu" bat oparitzeko aukera izan dezala, haren lanketa pertsonalizatuaz gozatu ahal izan dezan.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Ondare-izaerako bira

**EUSKADIREN HISTORIA HAREN LEKU ENBLEMATIKOENEN BITARTEZ**

Katalunia
http://www.cataloniatours.cat/en/

## Deskribapena

Historiak eta haren pasarteek gure orainaldia ulertzen eta etorkizunerako prestatzen laguntzen digute. Horrela, historia- edo ondare-izaerako turismoa aukera paregabea da bisitatzen gaituzten pertsonek nahiz jatorria Euskadin duten pertsonek Euskadiko historia ulertu eta ezagutu dezaten. Horrenbestez, EAEko mendez mendeko leku historikoenetatik igaroko diren ibilbideak egitea proposatzen da.

## Berrikuntza taktikoa

- Balio erantsia
- Barne- eta kanpo-produktua
- Segmentazioa

**Kostu ekonomikoa**: ■ □ □

**Ezarpen-denbora**: ■ ■ □ >6 hilabete

## Erabilgarritasuna

Turismo Kulturalari buruzko Plan Estrategikoan zenbait ideia adierazten dira horiek produktu gisa abiarazteko.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

SEKTORIALA

# 3 Packs

**HIRU HIRUKO, HIRU EGUN, HIRU ERREFERENTZIA EGUNEKO, PREZIO BAT**

Euskadi

## Deskribapena

Hiru hirien arteko hurbiltasunak, eta oro har, Euskadiko bide-lotura egokiak denbora-epe motzean baliabide bat baino gehiago ikusi ahal izateko aukera ematen du. Proposamen honen bidez hiru baliabideren konbinazioa sustatu nahi da lurralde bakoitzeko. Aldez aurretik egindako produktu-proposamenen konbinazioaren emaitza da, Euskadiko hiri-inguruneen eskaintza holistikoa eta anitza bilatuz. Dena den, Euskadiko eskaintza turistikoko beste esparru batzuetan ere aplikatu daiteke "hirukoteen" formatua: hiru portu, hiru hondartza, hiru merkatu, eta abar.

## Berrikuntza estrategikoa

- Sormena baliabide turistikoak konbinatzeko orduan
- Fluxu-banaketa
- Batez besteko gastua areagotzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ ■ □ | ■ ■ ■ >9 hilabete |

## Onurak

Diru-sarreren gehikuntza. Desestazionalizazioa.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

INSTITUZIONALA

# Hirien hiruko packa

**"HIRU HIRI, HIRU LEKU ENBLEMATIKO, PREZIO BAT" HIRUKO PACKA**

Visit Malta. Tour of Three Cities
http://www.visitmalta.com/en/the-three-cities

## Descripción

Bilbao, Donostia/San Sebastian, Vitoria-Gasteiz...tres ciudades, tres estilos de vida diferentes. Las tres capitales ofrecen paisajes urbanos y naturales de gran belleza. Además de una amplísima oferta cultural, de ocio, gastronómica, etc. Se debe tratar de distribuir los flujos de visitantes hacia los tres territorios, ampliando el espectro de la experiencia turística en Euskadi. Cada día se conocería una de las ciudades, comenzando por lugares emblemáticos de cada una de ellas : La Concha, Casco Viejo de Vitoria-Gasteiz, Casco Viejo de Bilbao, Artium, Guggenheim, Tabakalera...las combinaciones son múltiples.

## Berrikuntza estrategikoa

- Hiru hiriak produktu bakar batean txertatzea
- Lurralde arteko lankidetza
- Fluxu-banaketa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●○○ | ●○○ 3-6 hilabete |

## Onurak

Batez besteko egonaldiak areagotzea. Diru-sarreren gehikuntza



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# HIRUKO packa

**MICHELIN IZARRA DUTEN 3 JATETXE, 3 HIRI, PREZIO 1 HIRUKO PACKA**

Gutxienez Michelin izar 1 duten euskal jatetxeen konbinazioa

## Deskribapena

Euskadi turismo gastronomikoaren gunea da, inolako zalantzarik gabe. "Foodie"-ak euskal sukaldaritzaren zapore tradizionalaren eta haren interpretazio moderno arrakastatsuaren bila gerturatzen dira gure lurraldera. Potentzial hori salmenta bidez merkaturatu daitezkeen produktuetan gauzatu behar da, jatetxe desberdinak bateratuz eta konbinatuz. Konbinazio horiek hiru lurraldeetako izar 1eko, 2ko edo 3ko jatetxeak barne hartuko lituzkete, Gipuzkoan establezimendu gehiago egon arren.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Sukaldaritza merkaturatze-kanal espezializatuetara eramatea
- Euskadiko eskaintza ohiko salmenta-kanaletan txertatzea
- Urruneko merkatuetara iristea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●○○ | ●●○ >6 hilabete |

## Onurak

Diru-sarreren gehikuntza. Batez besteko egonaldiak luzatzea. Desestazionalizazioa. Bisitatzen gaituzten pertsonekiko lotura emozionala.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Hirukoa

**HIRU HOTEL, HIRU GAU, PREZIO BAT**

Caza ofertas www.cazaofertas.es

## Descripción

Bidaiariak eskaintzak ehizatzen saiatzen dira, eta Internetek ere horretarako bide ematen du; hori dela-eta, oso garrantzitsua da sustapen-paketeak merkaturatzea, Euskal Herriko ostatuak kanpoan sustatzeko. Hiruko pakete honen bidez Euskadiko hiru hotel erreserbatuko lirateke, hiru gauez eta prezio bakar baten truke. Marketin-kanpaina erakargarri bat eginez lankidetzan jarduten duten hotelen markari eta norakoari dagokion irudia sustatu daiteke

**Berrikuntza taktikoa**

- Diru-sarrerak, beste ostatu batzuekin batera lan egiteagatik
- Bezeroaren asebetetze-maila handitzea
- Komunikazioa eta merkaturatzea hobetzea.

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●○○ | ●○○ <3 hilabete |

**Packaren aukerak**

Egonaldi laburrak, 3 hotel, 3 gau guztira. Egonaldi luzeak: 3 hotel, 3 gau hotel bakoitzean.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

# 4. Berrikuntza inkrementaleko neurriak goi-mailako merkatuari dagokionez



# 4. Berrikuntza inkrementaleko neurriak goi-mailako merkatuari dagokionez


| Goi-mailako inkrementala | Aplikazio-azpisektore potentzialak | Orrialdea |
|---|---|---|
| Ekitaldietarako erregistro eta sarbide azkarrak | Kongresuen antolatzaile profesionalak Gidak. Agentziak. Norakoak. Aretoak dituzten hotelak | 53 |
| Amenity eta burkoen karta | Ostatuak | 54 |
| Gamifikazioa | Norakoak | 55 |
| Lotutako ekitaldiak | Kongresuen antolatzaile profesionalak | 56 |
| Gailuetarako erretiluak | Garraioa | 57 |
| Baterako sormena | Mota guztietako enpresak eta norakoak | 58 |
| Enpresen gizarte-erantzukizuna | Ostalaritza | 59 |
| Online kontseilaritza | Ostatuak | 60 |
| Kopenhague, MICE norakoa | Kongresuen antolatzaile profesionalak Norakoak. Ostatuak | 61 |
| CotiFax | Kongresuen antolatzaile profesionalak Hotelak. Agentzia harkorrak | 62 |
| Delegate package | Hotelak. Agentziak. Kongresuen antolatzaile profesionalak | 63 |
| Digital signage | LANE Saltokiak. Ostatuak. Museoak. Tabernak eta jatetxeak | 64 |
| E-Menua | Tabernak eta jatetxeak. Ostatuak. Enotekak eta saltokiak | 65 |
| Feeling Basque | Musika-ekoiztetxeak Erakundeak | 66 |
| Ekitaldi gamifikatuak | Kongresuen antolatzaile profesionalak Agentziak | 67 |
| Ekitaldi "berdeagoak" | Kongresuen antolatzaile profesionalak Agentziak | 68 |
| Ekitaldiak eta kirolak | Turismo aktiboa. Kongresuen antolatzaile profesionalak Agentziak | 69 |
| Gastronomia osasungarria ekitaldietan | Hotelak. Jatetxeak. Catering-zerbitzuak. Kongresuen antolatzaile profesionalak | 70 |
| Hibridazioa | Norakoak. Enpresak. Produktu Klubak | 71 |
| Itxaron-zerrenda | Ostatuak. Jatetxeak | 72 |

# Goi-mailako eta azpisektoreko (eta II) ideia berritzaileen zerrenda


| Goi-mailako inkrementala | Aplikazio-azpisektore potentzialak | Orrialdea |
|---|---|---|
| Estilo-liburua | Norakoak. Enpresak | 73 |
| *Mapping projection* | Norakoak. Ekitaldiak. Museoak | 74 |
| Google Wallet | ST bidezko ordainketa onartzen duten enpresa-mota guztiak | 75 |
| Gailuen mailegua | Ostatuak | 76 |
| Jasangarritasuna | Ostatuak. Tabernak eta jatetxeak. Museoak. Saltokiak | 77 |
| *Indoor* ohianeztapena | Kongresuen antolatzaile profesionalak Agentziak | 78 |
| Aireportuetako leihatilak | Ostatuak. Ostatu-elkarteak | 79 |
| Bideokonferentzia-inkesta | Agentzia igorleak | 80 |
| Upategi egokituak | Museoak. Upategiak. Erakarpenak | 81 |
| Bisitaldi birtualak | Ostatuak. Jatetxeak. Museoak. Saltoki turistikoak | 82 |



# KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK, GIDAK, AGENTZIAK, NORAKOAK, ARETOAK DITUZTEN HOTELAK

## ENPRESARIALA

# Ekitaldien erregistro eta sarbide azkarragoak

**BILTZAR, LASTERKETA ETA KIROL-EKITALDIEN ANTOLAKUNTZENTZAT**

ITN International
www.itn-international.com/products.html

### Descripción

Enpresa holandar honek ekitaldietarako akreditazio eta erregistrorako irtenbide teknologikoak eskaintzen ditu. Hiriko CB-arekin adostu ostean, batzarrerako akreditazioak garraio publikoa erabiltzeko, museoetan deskontuak aplikatzeko eta abarretarako balio dezake, eta hori da, hain zuzen, haren proposamenik berritzaileena.

### Berrikuntza estrategikoa

- Norakoan izandako esperientzia hobetzea
- Helmuga teknologiko gisa kokatzea
- Beste ekitaldi / norako batzuekin bereiztea

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●○ >6 hilabete |

### Erabilgarritasuna

Erabilerraza; dena den, denbora gehiago beharko litzateke norakoan ezartzeko, eragindako eragile-kopurua dela eta.



ENPRESARIALA

# Harrera-artikuluen eta burkoen karta

**OSTALARIAK BERE AMENITY ETA BURKOAK AUKERATU DITZAKE**

Barceló Oviedo Cervantes Hotela
www.hotel-barcelo-oviedo-cervantes/carta-almohadas

## Deskribapena

Atsedena eta higienea funtsezko faktoreak dira ostatuko egonaldia egokia izan dadin. *Amenitien* eta burkoen karta-eskaintzarekin ostatuan hartutako pertsonen beharrezko zaintza lortzen da, horiek aukeraketa beren premien arabera gauzatu dezaten. Erreserba egiten denean, ostatua hartu duen pertsonak gustukoen dituen harrera-artikuluak aukeratu ditzake, eta logelara iristean, han izango dituzte prest, baita aukeratutako burkoa bera ere. Horrek guztiak hobetu egiten du egonaldiaren esperientzia: Mikrofibra, latex, kotoi, zeta edo beste material batez egindako burkoa.

## Berrikuntza taktikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Ostatuaren irudia hobetzea
- Bezeroaren gogobetetasun-maila hobetzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●○ <9 hilabete |

## Gamaren zabaltasuna

Hura aldatu egin daiteke aurrekontuaren arabera, baina ostalariari hautatzeko aukera emate hutsa plus bat da dagoeneko, hasierako gama txikiagoa izan arren.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




## INSTITUZIONALA

# Gamifikazioa

**ESPERIENTZIA HOBETZEKO APLIKAZIO GAMIFIKATUAK**

Secret Berlin
www.secretberlin.com

### Deskribapena

Terminal mugikorrak esperientzia turistikoaren protagonista bihurtzen ari dira. Argazkiak, bideoak, aplikazioak, sare sozialak... dagoeneko ohikoak diren aplikazio horiei aplikazio gamifikatuak gehitzen zaizkie orain. Horiek norakoaren istorio bat kontatzen digute eta horiekin jolasteko gogoa pizten digute, hobeto ezagutzeko helburuarekin. Norakoan egindako bidaia-esperientzia aberasten duten mugikorrerako aplikazioak dira; horien bidez zenbait joko edo jinkana proposatzen dira, leku desberdinak ezagutzera "behartuz".

### Berrikuntza estrategikoa

- Bidaiariaren jarrerari buruzko informazio gehiago lortzea
- "Euskadi" marka turistikoa bisitarien terminalean txertatzea.
- Bidaiaren kalitatea eta memorabilitatea areagotzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ ■ □ | ■ ■ ■ >9 hilabete |

### Onurak

Paperezko liburuxketan aurreztea. Lotura emozionala. Bereizkuntza. Asebetetze-mailaren gehikuntza. Fluxu-banaketa.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




**ENPRESARIALA**

# Lotutako ekitaldiak

Topi
[http://topi.com](http://topi.com)

## Deskribapena

Topi-k aplikazio berritzaileenak eskaintzen ditu ekitaldien antolakuntzari dagokionez, ekitaldiari buruzko informazioa lortzeko eta erabiltzaileen arteko elkarreraginkortasun eta harremanerako irtenbideak eskainiz. Horren emaitza gisa, ekitaldi teknologiko eta parte-hartzaileagoak ditugu, elkarrekin lotuagoak daudenak eta informazio gehiago eskaintzen dutenak.

## Berrikuntza estrategikoa

- Harreman sozialak areagotzen ditu
- Prozesuak errazten ditu
- Terminal mugikorrak ekitaldiaren esperientzian txertatzea

**Kostu ekonomikoa**

**Ezarpen-denbora**

<6 hilabete

## Onurak

Asebetetze-mailaren gehikuntza. Lotura emozionala.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# ENPRESARIALA

## Gailuetarako erretiluak

**ERRETILU ERAISGARRI DESBERDINAK, ERABILTZEN DIREN GAILU MUGIKORREN ARABERA**

Smart Tray konpainia
http://travelistalab.com/?p=496

### Deskribapena

Smart Tray enpresak hegaldietarako hiru erretilu eraisgarri diseinatu ditu bidaiarien gailu mugikorren osagarri gisa. Berrikuntza honi esker bidaiariak aske utzi ahal izango ditu bere eskuak, eta ez du gailua eutsi edo beste objektu batzuekin, janariarekin edo edariarekin malabarismorik egin beharrik izango.

### Berrikuntza estrategikoa

- Gaur egungo bezeroetara egokitzea
- Kontsumoaren esperientzia hobetzen da
- Memorabilitatea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●○ >6 hilabete |

### Erabilgarritasuna

Erretiluen egokitzapen sinple batek erabateko aldaketa eragiten du bidaiariaren erosotasunari eta esperientziari dagokionez.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia ... marko dute.



## ENPRESARIALA

# Baterako sormena

**OSTALARIAK KO-SORTU DITZAKEEN ENPRESAREN INSTALAZIOAK**

Yotel New York Hotel
www.yotelnewyork.com

### Deskribapena

Instalazioen berrikuntza sormena askatzeko eta Lego piezez osaturiko horma erraldoi bat eraikitzeko aukera bat izan zen Yotel hotelarentzat, ostalariei piezak aldatu, jolastu eta forma desberdinak diseinatuz jostatzeko aukera eskainiz. Ekintza hori adibide gisa hartu daiteke ostatuaren eta bezeroen arteko baterako sormenaren antzeko programak sortzearen garrantzia azpimarratzeko, bezeroei irudimena izan dezatela eskatuz eta horiei pertsonaren eta enpresaren artean lotura sendoa ezartzeko aukera eskainiz.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ostalariaren gogobetetze-maila areagotzen da
- Ostalariaren eta ostatuaren arteko lotura sendoagoa sortzen da
- Ostatuaren irudia hobetzen da

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ● ○ ○ | ● ● ○ >6 hilabete |

### Sustapena

Social media-ko kanpainetarako egokia, establezimenduaren #, Instagram-eko argazki-lehiaketa eta abarren bidez.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

SEKTORIALA

# Gizarte-erantzukizuna

## JARDUERETAN GIZARTE-PROIEKTUETAN JARDUTEKO ESKAINTZA GAINERATZEA

Hoteles Confortel www.confortelhoteles.com
Entremares Hotela www.entremares.es

### Deskribapena

Enpresa turistikoek gizartean duten eraginarekiko kezka agertzen duten gero eta pertsona gehiago daude, eta turistak gero eta zorrotzagoak dira horien gizarte-funtzioari dagokionez. Confortel hoteletan irisgarritasun arloko sentsibilitateari eta minusbaliotasuna duten pertsonei buruzko prestakuntza-plan zehatzak egiten dira. Proiektu-mota horietan −sukaldaritza-eskolak haurrentzat edo xake-eskolak garuneko gaixotasunak dituzten pertsonentzat, esate baterako− bisitaria parte-hartzaile bihurtu daiteke, borondatezko jarduerekiko eta gizarte-ekintzarekiko interesa duten gero eta pertsona gehiago baitaude.

### Berrikuntza estrategikoa

- Ostatuaren gizarte-jasangarritasuna handitzea
- Tokiko preskribatzaileak irabaztea
- Hotelaren irudia hobetzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■■□ | ■■□ 3-6 hilabete |

### Langileen kostuak

Beren ekimen bidez jarduera horiek sortuko lituzketen tokiko pertsonei eskain dakizkieke instalazioak



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Online atezaina

## 24 ORDUKO ETA 7 EGUNEKO ONLINE ATEZAINTZA-ZERBITZUA

Hyatt www.hyatte-concierge.com
Intercontinental www.ihg.com/intercontinental/hotels

### Deskribapena

Atezaintza-zerbitzua ostatua ematen duten establezimendu askotan desagertu den lehen zerbitzuetako bat da. Dena den, eskainitako zerbitzua oso erabilgarria da bezeroentzat, hiri-izaerako ostatuetan batik bat. Bisitatzen gaituzten pertsonen sare sozial bidezko arretaren (Twitter bidez batez ere) edo aplikazioen bitartez, hotelek balio erantsiko zerbitzu hori eskaintzen jarrai dezakete.
Aplikazioak ez dira nahitaez hotelentzat *ad-hoc* egin beharrik izango, dagoeneko merkatuan dauden garapenak erabil baitaitezke, horiek establezimendu edo kate bakoitzera egokituz.

### Berrikuntza estrategikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Bezeroentzako balio erantsia
- Asebetetze-maila eta gastua areagotzeko aukera

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●○ | ●●○ 3-6 hilabete |

### Onurak

Langile fisikoei dagokien aurrezkia. Bereizkuntza. Diru-sarreren gehikuntza



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Kopenhage, MICE norakoa

**MICE NORAKOENTZAKO IDEIA BERRIEN GIDA PERFEKTUA**

---

Copenhague, Dinamarca
www.bellacenter.dk www.meetovation.com

**Descripción**

Zalantzarik gabe, honako hau da MICEk Europan duen norakorik berritzaileena (beharbada baita munduan ere), "Out of the box" eta % 100 Berdea ikuspegiari esker. MICE eskaintza bileretako sormenarekin eta eraginkortasunarekin lotzen dituen Meetovation eta Bella Center-eko (Kopenhagen ekitaldietarako erabiltzen den egoitza nagusia) erleekin loturiko proiektuaren gisako proiektuek jarraitu beharreko bidea adierazten digute.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Norakoan izandako esperientzia hobetzea
- Helmuga teknologiko gisa kokatzea
- Beste ekitaldi / norako batzuekin bereiztea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●● >9 hilabete |

**Langileen kostuak**

Ekitaldien aldez aurretiko kontzeptualizazio-prozesua egin behar da, konbentzio-zentroetako langileak prestatzeaz gain.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK, HOTELAK, BIDAIA-AGENTZIAK

## ENPRESARIALA

## CotiFax

**TALDEEN ETA EKITALDIEN KOTIZAZIORAKO ONLINE PLATAFORMAK**

CotiFax (Jerez de la Frontera, Cádiz)
www.cotifax.com

### Descripción

Online plataformak sortzen ari dira ekitaldiak zuzenean kotizatzeko, betiere bezeroek sistemara iraultzen dituzten zenbait parametro kontuan hartuta. Hotel-kate batzuek ere txertatua dute dagoeneko, eta aplikagarria izan daiteke Convention Bureaux-rako ere, informazio-terminoetan batik bat, talde eta ekitaldietarako prezioen inguruko informazioa eskaintzen baitute.

### Berrikuntza estrategikoa

- Informazio- eta erreserba-prozesuaren hobekuntza
- Erabilerraza
- Etengabeko erabilgarritasuna, "hodeian" baitago

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●○ >6 hilabete |

### Erabilgarritasuna

Internet bidezko erabilgarritasuna abantaila bat da agentzia nahiz zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresentzat.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# HOTELAK, AGENTZIAK, KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK

**ENPRESARIALA**

## Delegate package

**HOTELEN MERKATURATZEA**

Avant Meetings
http://www.avantameetingsolutions.co.uk/day-delegate-packages

### Deskribapena

Hoteletan egiten diren bileretako bezeroei prezioa jartzeko eta zerbitzuak kotizatzeko modu honen bidez, prezio bat ematen da parte-hartzaile bakoitzeko; prezio horretan zerbitzu guztiak sartzen dira barne, eta beraz, aretoen prezioak, ostatua eta jatetxea ez dira prezio independente gisa hartzen. Askoz praktikoagoa izaten da ekitaldien antolakuntzarako. Hoteletan egiten diren bileretako bezeroentzat asko bizkortzen da zerbitzuen merkaturatze- eta kotizatze-prozesua.

### Berrikuntza estrategikoa

- Merkaturatzeko erraztasuna
- Praktikotasuna
- Aurrekontuaren argitasuna eta bizkortasuna

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ○ ○ <3 hilabete |

### Onurak

Asebetetze-mailaren gehikuntza. Kostuak aurreztea. Salmentak handitzea.

**ENPRESARIALA**

# Seinaleztapen digitala

**KARTEL DIGITALAK**

TechTur [www.techtur.com](http://www.techtur.com)

## Deskribapena

Irakurtzeko eta eguneratzeko errazagoak izango diren kartel digitalen erabilera, kostuak murriztuz. Kartel-formatu berri hori mota guztietako negozio turistiko, turismo-bulego, biltzar-jauregi eta abarretan erabil daiteke. Gainera, bisitariak enpresaren edo norakoaren edukietan eta proposamenetan esku hartu dezake, ukipen-pantailen bitartez.

## Berrikuntza estrategikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Irudia hobetzea
- Eremuen aprobetxamendua

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●○ | ●●● <9 hilabete |

## Langileen kostuak

Kostuaren murrizketa beste mota bateko kartelak erosteko orduan.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



## ENPRESARIALA

# Menu elektronikoa

**UKIPEN-PANTAILAK KAFETEGI EDO JATETXEKO MENUAK AUKERATZEKO**

Tocarta www.tocarta.com
eMenu eta eSumiller www.emenuworld.com

**Descripción**

Ukipen-pantailen edo tableten erabilera bereziki erabilgarria da kafetegi edo jatetxean egindako eskaerak arintzeko eta eguneraketak egitean kostuak murrizteko. Teknologia horiek are erakargarriagoak egiten dituzte platerak, eta gainera, plater edo menu bakoitzaren informazio zabalagoa eskaintzen dute, horrela, mezu komertzialaren biraltasuna erraztuz; izan ere, dastatutako platerak sare sozialetan partekatzeko aukerak gehitu daitezke eta bezeroen esperientzia gamifikatu daiteke, deskontuen sistema dibertigarri eta eraginkor bat sortuz.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Lehiakideengandik bereiztea
- Eraginkortasuna handitzea
- Irudia hobetzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●○○ <3 hilabete |

**Bereziki garrantzitsua**

Ahaztutako aginduak, akatsak eta itxaronaldiak murrizten dira



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



## INSTITUZIONALA

# *Inside the Land of the Basques*

**EUSKAL KULTURARI BURUZKO IKUSKIZUNA**

"A la Mexicana" Show afaria. Mexiko
[www.estrategiasturisticas.com/index.php/toptentravelclub/cena-show-a-la-mexicana](www.estrategiasturisticas.com/index.php/toptentravelclub/cena-show-a-la-mexicana)

### Deskribapena

Euskal ohiturek, kulturak eta folkloreak erakargarritasun handia dute horien berezitasuna eta poztasuna dela eta. "*Inside the Land of the Basques*" bi orduko ikuskizun iraunkorra izango litzateke eta euskal kulturaren elementu bereizgarri nagusiak laburbilduko lituzke, hala nola, kirolak, ohiturak, dantzak eta musika. Hasiera batean Bilbon eta Donostian egongo litzateke ikusgai, eta hark arrakasta izanez gero, ibiltaria nahiz iraunkorra izan liteke, hiri horietan nahiz beste batzuetan.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Euskadiko ohiturei eta folkloreari balioa ematea
- Euskal kolektibo artistikoen esku-hartzea
- Kultura- eta aisialdi-izaerako eskaintza berritzailea izatea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora Kostua | |
|---|---|---|
| ● ● ● | ● ● ● | <9 hilabete |

**Bereziki garrantzitsua**

Kontzeptualizazio-, sustapen- eta ekoizpen-gastu altuak



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# KONGRESUEN ANTOLATZAILE PROFESIONALAK, AGENTZIAK

**ENPRESARIALA**

## Ekitaldi gamifikatuak

**DIBETSIOA ETA ENGAGEMENT SORTZEA**

Gamify App
http://www.gamifyapp.com

### Deskribapena

"Bertaratuak" "partaide" bihurtzea, ekitaldiak gamifikatzeko sustatuko den lehiaketaren bidez dibertsioa eta lotura emozionala sortuz: izarrak partaidetzarik aktibo, handi, kolaboratzaile, optimista, langile eta polemikoenari.

### Berrikuntza estrategikoa

- Elementu berritzailea segmentu kontserbatzaile batean
- Balio erantsia eta gogoangarritasun-faktorea
- Lotura handiagoa ezartzen du ekitaldia gauzatu den lekuaren eta bertaratuaren artean

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ □ □ <3 hilabete |

### Onurak

Diru-sarreren gehikuntza. Jarduerak antolatzean kostuak aurreztea. Ekitaldia gauzatu den lekuarekiko eta norakoarekiko lotura emozionala.

INSTITUZIONALA

# Ekitaldi "berdeagoak"

**EKITALDIEN ANTOLAKUNTZA GLOBALARI DAGOKION KARBONO-AZTARNA KALKULATZEKO ERREMINTA**

Denver Visitors&Convention Bureau
http://www.denver.org /denver-meetings-conventions/green-meetings/

## Deskribapena

Jasangarriak izateari eta ingurumena errespetatzen duten ekitaldiak garatu beharrari erantzuten dion joera dela-eta, ekitaldien antolatzaile, norako eta egoitza batzuek erreminta bat txertatu dute edozein motatako ekitaldiek sortutako karbono-aztarna kalkulatzeko. Posizionamendu jasangarria gero eta gehiago baloratzen da MICE merkatuan esku hartzen duten eragile guztien aldetik, eta Euskadiren posizionamendua bat dator proposamenarekin.

## Berrikuntza estrategikoa

- Ekitaldiak antolatzeko orduan gizarte-erantzukizun korporatiboa kontuan hartzea
- Antolatzaile eta parte-hartzaileentzako sentsibilizazioa
- Beste norako batzuekin bereiz

**Kostu ekonomikoa**

●○○

**Ezarpen-denbora**

●○○ <3 hilabete

## Langileen kostuak

Ez du kudeaketa-kosturik



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Ekitaldiak eta kirolak

**EKITALDI KORPORATIBOETAN EUSKADIN OHIKOAK EDO TRADIZIONALAK DIREN KIROLAK TXERTATZEA**

Zenbait agentzia
http://www.upsurfclub.org/#!surf-coaching/c202h
http://basqueplus.com/sentir-gymkhana-de-deporte-rural/
http://www.xvaganza.com/outdoor.htm

## Deskribapena

Kirol batzuek Euskadiren funtsa osatzen dute. Batzuek tradizioetara, jai-jardueretara eta lehiaketa euskaldunetara eramaten gaituzte: herri-kirolek, hain zuzen. Eta beste batzuk, aldiz, surfing-a adibidez, ezin hobeto txertatu dira euskaldunen bizitzetan. Kirol-jarduera horiek oso erabilgarriak, pedagogikoak eta dibertigarriak dira ekitaldi korporatibo, coaching, jinkana eta abarretan txertatzen direnean.

## Berrikuntza estrategikoa

- Produktu berriak
- Euskal ohituren sustapena (herri-kirolak)
- Modan dagoen kirol batekiko lotura (surfing)

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■ □ □ | ■ ■ □ <6 hilabete |

## Langileen kostuak

Taldeak behar bezala prestatzea, beren produktu-zorroan mota honetako jarduerak prestatu eta eskaini ahal izateko.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# Gastronomia osasungarria ekitaldietan

**DENBORAREN APROBETXAMENDU HOBEA AHALBIDETUZ**

Eat smart, move more
http://www.eatsmartmovemorenc.com/HealthyMeetingGuide/

## Deskribapena

Smart Food Movement ekitaldietako sukaldaritzan janari arina eta indargarria txertatzera xedaturiko joera bat da, parte-hartzaileak edukiekin guztiz lotuta egon daitezen, eta horrela, "etekin handiagoa" atera dezaten edo ekitaldia hobeto aprobetxatu dezaten. Ekitaldietako sukaldaritzari ukitu modernoa eta osasungarria ematen dio, bilerak onuragarriagoak izan daitezen.

## Berrikuntza estrategikoa

- Ekitaldiaren aprobetxamendua hobetzen duen joera
- Tokiko produktu ekologikoak txertatzea ahalbidetzen du
- Euskadiren posizionamendu gastronomikoa indartzen du

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ □ □ <3 hilabete |

## Onurak

Asebetetze-mailaren gehikuntza. Fideltasuna. Bereizkuntza



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.

INSTITUZIONALA

# Hibridazioa

**PRODUKTU BERRIEN SORRERA**

Hibritur Selva
www.hibriturselva.cat

## Deskribapena

Hibridazioa sormen-teknika indartsu bat da, "El Efecto Medici" liburuan oinarritua. Hainbat norakotan erabiltzen da, eta haren bidez, aurrez aurre jartzen dira gai baten inguruko ikuspegi desberdinak (produktu turistikoen sorrera, adibidez). Emaitza sektoreko profesionalek modu endogamikoan sortzen dutenean baino disruptibo eta berritzaileagoa da. Azaldutako adibidean berrikuntzarako etengabeko plataforma bat sortu da Gironako La Selba eskualdeko produktu turistikoen sorreran aplikatutako sormenaren bitartez.

## Berrikuntza estrategikoa

- Proposamen disruptibo eta berritzaileagoen sorrera
- Herritarrek norakoaren kudeaketari dagokionez esku hartzea
- Posizionamendu berritzailea eskaerari dagokionez

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■ □ □ | ■ ■ □ <3-6 hilabete |

## Erabilgarritasuna

Produktuaren garapenerako erabili ahal izateaz gain, norakoaren sustapena eta kudeaketa hobetzeko erabil daiteke.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



**ENPRESARIALA**

# Itxaron-zerrenda

## ERRESERBA BAT BALIOGABETU OSTEKO JAKINARAZPEN AUTOMATIKOA

Travel Brilliantly lehiaketako ideia finalista (Marriott Hotels)
www.travel-brilliantly.marriott.com

### Deskribapena

Pertsona batek gure ostatuan erreserba bat egin nahi duenean eta hura guztiz beteta dagoenean, hura joan dadila utzi edo erreserbaren bat baliogabetu orduko jakinarazpen bat bidaliko zaiola esan geniezaioke. Erosteko asmo hori geureganatzeko, kasuan kasuko pertsonari itxaron-zerrenda batean sartzeko aukera eman geniezaioke, lekuren bat baliogabetzen denean, modu automatikoan jakinarazi ahal izateko (SMS, whatsapp edo sare sozialen bitartez). Horrela, bezeroak ez galtzeko eta horiek lehiakideengana ez joateko aukera handiagoa izango dugu.

### Berrikuntza taktikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Bezeroak hautemateko optimizazioa
- Bezeroaren asebetetze-maila handitzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ □ □ <3 hilabete |

### Zerrendan erregistratzeko sistema

Oso sistema sinplea da, eta erreserbaren bat baliogabetuz gero itxaron-zerrendan erregistratzeko mezua jasotzen duen botoia sakatu besterik ez da egin behar.



INSTITUZIONALA

# Estilo-liburua

**GIRO EUSKALDUNA TURISMO- ETA AISIALDI-IZAERAKO INSTALAZIOETAN**

Hegoalde
Ikurrinaren edo Ezpeletako piperraren gisako sinboloak erabiltzen dira

## Descripción

Turismo- eta aisialdi-izaerako instalazioetan inspirazio euskalduneko dekorazioa eta giroa sustatzea. Benetakotasuna galdu gabe, euskal dekorazio-ikonoak erabiltzea, estilo-liburu bat egitea eta hura modu sinplean enpresa turistikoei eskaintzea proposatzen da, horiek beren dekoraziorako ideiak hartu ditzaten. Horrek itxura euskaldunagoa eta homogeneoagoa sustatuko du.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Beste norako batzuengandik bereiztea
- Norakoaren irudia hobetzea
- Euskal kultura hedatzean homogeneotasuna mantentzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●● >9 hilabete |

Exekuzioak kostu ertaina-baxua izan dezan, eskuliburuak erraz gauzatu daitezkeen ideiak txertatu beharko lituzke.



http://www.patachousse.com/wp-content/uploads/2010/09/DSC_0057.jpg

Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Mapping projection

**ARGIZTATZE ARTISTIKOA**

Acciona Eventos http://www.youtube.com/user/gpdeventos

### Deskribapena

Ekitaldietarako mapping edozein gainazaletan irudiak proiektatzea ahalbidetzen duen ikus-entzunezko teknika bat da, ekitaldiari ikusgarritasun handia eskainiz eta mota guztietako irudiak eta animazioak txertatuz. Aurkezpen eta proiekzio publiko nahiz pribatu erakargarriagoak eta ikusgarriagoak egitea ahalbidetzen du.

### Berrikuntza estrategikoa

- Eragin bisuala
- Ekitaldi tradizionalenei dagokienez bereiztea
- Erabilera-aldakortasuna ekitaldi handietan

**Kostu ekonomikoa*** **Ezarpen-denbora**

>6 hilabete

### Onurak

Posizionamendua. Biraltasuna eta ahotik belarrira. Sustapen-gastuen aurrezpena. Publicity.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



# ST ERABILTZEN DUEN EDOZEIN ENPRESA EDO ERAKUNDE

**ENPRESARIALA**

## Telefono mugikor bidezko ordainketa

**ORDAINKETAK GOOGLE WALLET BIDEZ EGIN AHAL IZATEA**

Starbucks http://www.starbucks.com/coffeehouse/mobile-apps

### Deskribapena

Google Wallet egin dituzun ordainketen informazioa eta transakzio guztien historiala biltegiratzen dituen doako zerbitzu bat da. Google-en erregistratuta dauden pertsonak Google Wallet orrian sar daitezke (wallet.google. com) kontu bat sortzeko. Gailuak Google Wallet bidez bakarrik eskuratu daitezke eta ezin dira fax, telefono, posta elektroniko edo eskaera bidez erosi. Google Play bidez erosketak egiteko orduan ezin izango dira kreditu-txartel birtualak, aurrezki-kontu medikuen txartelak edo garraio publikorako txartelak erabili.

### Berrikuntza estrategikoa

- Bezeroentzako erraztasun gehiago
- Lehiakideengandik bereiztea
- Negoziorako kobrantzen ekitaldi handietan

**Kostu ekonomikoa*** ●○○

**Ezarpen-denbora** ●●○ >6 hilabete

### Langileen kostuak

Prestakuntza bezeroekin harremanetan jartzen diren pertsonentzat



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




ENPRESARIALA

# Gailuak uztea

**KINDLE, IPAD ETA IPHONE GAILUAK DOAN ERABILI AHAL IZATEA**

Inn by the sea [www.innbythesea.com](http://www.innbythesea.com)
Burj Al Arab de Dubái Hotela [www.jumeirah.com](http://www.jumeirah.com)

## Deskribapena

Ostalariei gailu teknologikoak eskaintzeko joerak gero eta gehiago sendotzen ari dira, horrela, establezimenduari irudi moderno eta teknologikoa emateko. Egonaldiak pertsonalizatu daitezela errazten da atezaintza birtual gisa jardutean, ostalariei beren egonaldiari buruzko orientazioa emanez eta salmenta nahiz salmenta gurutzatu kopurua areagotuz. Puntako ekimenek iMac-ak jartzen dituzte bezeroen eskura (Barceló Sants Barcelona Hotela), baita Kindles (Inn by the sea), ipad (Hyatt Hotels & Resorts) eta iphone-ak ere.

## Berrikuntza estrategikoa

- Ostatuaren irudia hobetzen da
- Harreran egindako eskaerak bizkortzen dira
- Upselling eta cross-selling aukerak ahalbidetzen ditu

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ □ □ <3 hilabete |

## Langileen kostuak

Sustapen-kanpaina bat egin zuten hoteletan ipad-aren erabilera sustatzeko [www.apple.com/mx/ipad/business/profiles/hyatt-hotels/](http://www.apple.com/mx/ipad/business/profiles/hyatt-hotels/)



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Jasangarritasuna

**ENPRESAREN INGURUMEN-ERAGINA MURRIZTEA**

Viena Stadthalle Hotela
http://www.hotelstadthalle.at/es

## Deskribapena

Dagoeneko badira beren autoaskitasun energetikoa lortzeko helburuarekin lan egiten duten establezimenduak. Horien artean Vienako Stadthalle hotela aipatu genezake, behar duten energia guztia bertan ekoizten baitute. Haren eraikuntza pasiboak 160 m²ko eguzki-zentrala, 93m²ko instalazio fotovoltaikoa eta urezko bero-ponpa bat ditu. Aparteko edateko ura dute hiriko hotel bat dela kontuan hartuta: harri naturalak erabiltzen dituzte hura indartzeko. Putzuko ura erabiltzen dute lorategia ureztatzeko eta komunetako zisternetarako. Eraikuntza pasiboko eremuan dauden 38 logelak energia aurrezten duten bonbillekin eta LED bonbillekin hornituta daude.

## Berrikuntza estrategikoa

- Kostuak aurreztea
- Enpresa jasangarri gisa kokatzea
- Balio erantsia bezero arduratsuentzat

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ● ● | ● ● ● >6 hilabete |

## Oharrak

Joera turistikoek inpaktu txikiagoa eragiten duten norako eta enpresa jasangarrien aldeko apustua egiten dute.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



ENPRESARIALA

# *Indoor* oihaneztapena

**NORAKO, EGOITZA ETA EKITALDIETARAKO POSIZIONAMENDU JASANGARRIA**

Exploramás
http://www.exploramas.com/blog/evento-sostenible-reforestacion-indoor/

## Deskribapena

Indoor oihaneztapena gizarte/ingurumen arloko erantzukizun-ekintza bat da bileretako parte-hartzaileentzat; gainera, prozesua gauzatzeko bertaratuek joan-etorriak ez egin behar izatea saiatzen gara. Buztina erabiliz, horiek zuhaitzen birpopulaketarako askoz eraginkorragoak diren primerako mahaitxoak egiten dituzte beren eskuekin; gero, aukeratutako lekura eraman daitezke horiek, Espainiako Baso Elkartearekin elkarlanean jardunez.

## Berrikuntza estrategikoa

- Enpresen Gizarte Erantzukizuna
- Beste ekitaldi batzuekin bereiztea
- Ko-sorkuntza

| Kostu ekonomikoa* | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ● ○ ○ | ● ○ ○ >6 hilabete |

## Onurak

Bereizkuntza. Posizionamendua. Lotura emozionala.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Aireportuetako leihatilak

**DOAKO LEIHATILAK HOTEL-SAREKO BEZEROENTZAT**

Madrilgo Barajas aireportuko kontsigna-zerbitzua
www.aeropuertomadrid-barajas.com/consignas-aeropuerto

## Descripción

Aireportu eta geltokietan oso ohikoa izaten da kontsigna-zerbitzua. Dena den, oraingo honetan haren ikuspegi bereizgarri bat proposatzen da: ostatu-sare zehatz bati dagozkion ostalarien ekipajea gordetzeko kontsignak doan erabiltzeko zerbitzua.

Ostatuek kontsignen diseinua aprobetxatu dezakete beren ostatuen publizitate sortzailea egiteko eta bezeroei norako turistikora iristean edo handik irtetean balio erantsi bat eskaintzeko.

## Berrikuntza estrategikoa

- Bezeroaren gogobetetasuna hobetzea
- Ostatuaren irudia hobetzea
- Aireportu eta geltokietako publizitatea

| Coste económico* | Tiempo de implementación* |
|---|---|
| | >6 hilabete |

## Merkatuen ikerketa

Inkesta azkarreko sistema bat ezarri daiteke leihatila irekitzeko, horrela, bidaiariaren informazio erabilgarria jasotzeko.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.




ENPRESARIALA

# Bideokonferentziak-inkesta

## NORAKORA IRISTEAN BEZEROEN ASEBETETZE-MAILA EZAGUTZEA

iAdvisors by Thomson
http://www.thomson.co.uk/blog/2012/08/google-plus-hangout/

### Descripción

Bidaia-agenteen eta bezeroen arteko harremana konfiantzan oinarritzen da, azken horiek beren gauzarik baliagarriena eskaintzen baitiete: gertuko pertsonekin igarotzen dituzten oporraldiak. Erronka horren aurrean, teknologiak erreminta berriak eskaintzen dizkigu bidaiaren asebetetze-maila eta esperientzia hobetzeko. Thomson-ek egiten duen moduan, bideokonferentzien doako aplikazioei esker −Google Hangouts, adibidez− agenteak kontratatutako bidaia egin aurretik, bitartean edo ondoren jar daitezke harremanetan bezeroekin.

### Berrikuntza estrategikoa

- Balio erantsia, arreta gehiago eskaintzen baitzaie bezeroei
- Enpresa berritzaile gisa kokatzea
- Markarekiko konfiantza handiagoa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ○ ○ <3 hilabete |

### Langileen kostuak

Langileak aplikazio horien erabilerari dagokionez prestatu beharko lirateke



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



INSTITUZIONALA

# Upategi egokituak

**ITSUEI ETA MINUSBALIOTASUNA DUTEN PERTSONEI EGOKITUTAKO UPATEGIAK**

Viña Real upategiak. Guardia
http://www.cvne.com/web/visitas.php?tab=2

## Deskribapena

Itsuentzat eta ikusteko minusbaliotasuna duten pertsonentzat egokitutako lehen upategia izan zen; horretarako, seinale espezifikoak jarri zituzten pertsona horiek upategiaren bisita osoa egin ahal izan dezaten. Pertsona guztiek ardoaren munduaz, usainez eta zaporeez gozatu ahal izatea zen helburua. Seinaleztapen berezi hori jartzeko zenbait testu eta infografia prestatu, horiek braille-hizkuntzara itzuli eta plaka eta euskarri berezi batzuetan jarri ziren Viña Real upategiari itxura ematen dioten eraikuntzetako zenbait lekutan.

## Berrikuntza estrategikoa

- Gizarte-erantzukizuna
- Mikrosegmentazioa
- Posizionamendua

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●● | ●●● >6 hilabete |

## Zailtasunak

Euskadiko Irisgarritasun Turistikoko Eredu bat dagoela azpimarratzea, sektoreko mota guztietako enpresetan erabil daitekeena



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



EMPRESARIALA

# Bisitaldi birtualak

**WEB-AREN BITARTEZ GURE NEGOZIORA EGITEN DIREN BISITA BIRTUALAK SUSTATZEA**

Abba Hotel Burgos www.abbaburgoshotel.com
Cadena Rezidor www.rezidor.com

### Descripción

Google-ek negozioen barnean grabaketak egiteko aukera eskaintzen du dagoeneko, gero erabiltzaile izan daitezkeen pertsonek establezimendua hobeto ezagutu dezaten. Hori bereziki interesgarria da ostatu-establezimenduetan, instalazioak are gehiago gerturatzen baitzaizkie bezeroei. Google-ekin behar bezala adostu daiteke hark establezimenduen barneko bisita birtualak doan eskain ditzan, Google Street View aplikazioren bitartez. Horrek establezimenduaren ikuspegi fidagarriagoa eskaintzen die bezeroei, aukerak errealitatera mugatuz.

### Berrikuntza estrategikoa

- Lehiakideengandik bereizgarria
- Gero eta eduki handiagoa, orduan eta bisita gehiago
- Zalantzak murrizten ditu

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ○ ○ <3 hilabete |

### Langileen kostua

Grabaketa egin eta bideoa igo ostean, haren funtzionamendua egiaztatu eta trafikoa web-era monitorizatu besterik ez da egin behar.

# 5. Berrikuntza erradikaleko neurriak



# Maila erradikaleko eta azpisektoreko ideia berritzaileen zerrenda

| Maila erradikaleko inkrementala | Aplikazio-azpisektore potentzialak | Orrialdea |
|---|---|---|
| Aroma pertsonalizatuak | Ostatuak. Turismo-bulegoak. Museoak. Saltokiak | 85 |
| Auto check-in | Ostatuak | 86 |
| E-Key | Ostatuak | 87 |
| Ekitaldi moldakorragoen egoitzak | Hotelak. Kongresuen antolatzaile profesionalak | 88 |
| Ostatu arduratsuak | Ostatuak | 89 |
| Bertako pertsonen inplikazioa | Norakoak | 90 |
| La Sede | Ekitaldiak | 91 |
| Hozkailu pertsonalizatua | Ostatuak | 92 |
| Marketin sentsoriala | Turismo-bulegoak. Museoak | 93 |
| Meeting architechture | Kongresuen antolatzaile profesionalak | 94 |
| Zuhaitz bat zure izenean | Garraioa | 95 |
| Turismoari buruzko MOOK-ak | Elkarteak. Erakundeak. Enpresak | 96 |
| Videotelling | Norakoak | 97 |
| Aurpegia ezagutzeko sistema | Kongresuen antolatzaile profesionalak | 98 |
| Sare turistiko beganoa | Tabernak eta jatetxeak. Norakoak. Ostatuak | 99 |
| Profil psikografikoa | Ostatuak | 100 |
| Euskal Truck Food | Tabernak eta jatetxeak. Kongresuen antolatzaile profesionalak | 101 |
| Yobot Robot | Ostatuak | 102 |



ENPRESARIALA

# Aroma pertsonalizatuak

## OSTALARIAK BERE LOGELAKO AROMA AUKERATU AHAL IZANGO DU

Equipa tu hotel www.equipatuhotel.com/fragancias-para-hoteles
Air aroma www.air-aroma.es/quien-esta-aromatizando/hoteles

### Descripción

Usaimenak funtsezko eginkizuna du memorian, usaimen-errezeptoreak etengabe konektatuta baitaude memoriaz eta emozioez arduratzen den burmuineko sekzioarekin. Horrela, ostatuaren giroa eta marka indartu egin daitezke esentziaren bitartez. Erreserba edo check-in egiteko orduan, "lurrinen karta" eskain dakieke ostalariei, horrela, horiek beren logelarako gogokoen duten aroma aukeratu dezaten: erlaxagarria, erromantikoa, energia-emailea, estimulagarria, abegikorra...

### Berrikuntza estrategikoa

- Irudia hobetzea
- Ostalariekin lotura areagotzea
- Markaren posizionamendua, lurrin korporatiboak aukeratuz gero

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●○○ | ●○○ <3 hilabete |

### Konponbideak

Hainbat eremutako lurrintzea kontrolatzen duten difusoreak edo guneak eskuz lurrintzeko metodoak erabil daitezke



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute.



SEKTORIALA

# Auto check-in

**HARRERAKO SISTEMA DIGITAL AUTOMATIKOA**

Nordic Choice Hotels www.nordicchoicehotels.no/comfort
IBM www.ibm.com/products/retail/products/self/kiosk/solutions/hotel

## Deskribapena

Check-in eta check-out prozesuetan autozerbitzu-sistema bat ezartzeak harreran ostalari ugari pilatu, ilarak sortu eta bezeroak zain egon ez daitezela errazten du. Sistema honen bidez kostu eragileak murrizten dira eta bezeroen gogobetetasuna areagotzen da, itxaronaldiak saihestu eta check-in prozesuak norberak egin nahi izaten baititu; zentzu horretan, markarekiko fideltasuna mantentzen duten bezeroak hautematea da joera. Gainera, harrerako langileek denbora gehiago izango dute check-in prozesua egitera harrerara jotzen jarraitzen duten bezeroei tratu hobea eskaintzeko.

## Berrikuntza estrategikoa

- Ostatuaren irudia hobetzen da
- Kostu operatiboak murrizten dira
- Bezeroen gogobetetasuna hobetzen da

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■■□ | ■■□ >6 hilabete |

## Erreferentzia

IBM-k hainbat hotel-katerekin lan egin du (Hilton, Starwood eta Marriott, adibidez) horiei auto-zerbitzurako irtenbideak eskaintzeko.



Todas las acciones deberán cumplir con la legislación vigente de aplicación en cada caso.



SEKTORIALA

# e-key

### LOGELA BIOMETRIKA EDO GILTZA DIGITAL BIDEZ IREKITZEA

Blue Metric www.bluemetric.mx/cerradura-biometrica-modos-apertura
Intelec www.intelec.com/cerraduras-electronicas eKey www.ekey.com

## Deskribapena

Korronte elektrikoaren bidez jarduten duten sarraila-sistemak dira, eta zenbait autentifikazio-motaren bidez erabil daitezke, zenbakizko kode eta pasahitzen bitartez, adibidez. Autentifikazio berritzaileenen artean parametro biometrikoak erabiltzen dituztenak ditugu, hatz-marka eskaneatuz, erretina eta irisa eskaneatuz edo ahotsa identifikatuz, esate baterako. Logela irekitzeko giltzarik erabiltzen ez dutenen joera ere izugarri hazten ari da, horiek smartphone bidez ordezkatuz. Kasu horretan, komunikazioa Bluetooth bidez gauzatzen da, eskaintzen zaigun identifikagarriari esker.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Harreran ostalariak zain egon ez daitezela lortzen da
- Check-out prozesua bizkortzen da
- Ostatuaren irudia hobetzen da

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●● | ●●○ >6 meses |

**Puntako enpresa**

Starwood katea aitzindaria da ateak smartphone bidez irekitzeko sistemari dagokionez (Alof Hotels Cupertino, Kalifornia)



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute





**ENPRESARIALA**

# Ekitaldi moldakorragoetarako egoitzak

**DENBORAREN APROBETXAMENDU HOBEA AHALBIDETUZ**

Steel Case learn lab http://www.steelcase.com/

## Deskribapena

Steel Case Learn Lab ekitaldietarako eremu dinamiko bat da, eta bertan, teknologiak, ikus-entzunezko baliabideek eta altzariek bertaratuen arteko komunikazio osatuagoa eta elkarreraginagoa ahalbidetzen dute. Merkaturatze-erreminta ezin hobea da ekitaldiak antolatzen dituzten egoitzentzat, enpresa antolatzaileek beren bileretan emaitza hobeak

## Berrikuntza estrategikoa

- Ekitaldiaren aprobetxamendua hobetzen duen joera
- Eremu dinamikoagoak eta moldakorragoak, ekitaldi profesionalen helburuak erraztuz

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ● ● | ● ● ● >9 hilabete |

## Onurak

Bereizkuntza. Asebetetze-maila handiagoa. Diru-sarreren gehikuntza



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



ENPRESARIALA

# Ostatu arduratsua

**BERDINTASUNEZKO KONTZEPTU EGOKIA ETA ARDURATSUA**

IHG katearen EVEN hotelak www.ihg.com/evenhotels
Starwood www.starwoodpromos.com/westingreenchoice

## Deskribapena

Gizarte, ekonomia eta ingurumen arloko jasangarritasunaren aldeko joera indartsua. Gela komunetan dagoen jende-kopuruaren araberako argi-intentsitatearen graduazioa, txorroten tenporizazioa, galdara-beharrik eza eta "districlima" sistemen erabilera. Elementuak smartphone batetik aktibatzen dira eta establezimenduko energia-kontsumoa neurtuko duen app bat prestatzen ari dira. Era berean, eskaintza gastronomiko osasuntsua eta ekipamenduak eta kirola egiteko guneak gaineratzen dira.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Ingurumen-inpaktuaren murrizketa
- Bezeroaren gogobetetasun-maila hobetzea
- Irudia hobetzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●● | ●●● >9 hilabete |

**Kostua epe ertain eta luzera**

Hasieran inbertsio altua egin behar da prozesuak aldatzeko, baina kostuak asko aurrezten dira epe ertain eta luzera



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute





## INSTITUZIONALA

# Bertako pertsonen inplikazioa

**BISITARIENTZAKO EDUKIA SORTZEKO ORDUAN HERRITARRAK KONTUAN HARTZEA**

Inspired by Iceland www.inspiredbyiceland.com
Visit a Swede www.visitaswede.com

### Deskribapena

Une hauetan, bidaiarien artean nabarmen hazi da online iritzien kontsumoa. Gainera, benetakotasunari eta berezitasunari dagozkion osagaiak funtsezko elementu bihurtu dira norakoa hautatzeko orduan. Horrela, euskal herritarrek beren bidaiari buruzko gomendioak eta iradokizunak, tokiko trikimailuak, momentu bereziak, festa txikiak, paisaiak eta txokoak utz ditzatela sustatzea proposatzen da. Eduki horiek leku berean gorde daitezke, Euskadirekiko interesa duten bisitariek eta aholkuek bat egingo duten online plataforma batean, adibidez.

### Berrikuntza estrategikoa

- Euskal herritarrek sustapenean duten inplikazioa sustatzea
- Euskadira iristen diren bidaiariei balio erantsi bat eskaintzea
- "Benetako" norako gisa kokatzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●● <12 hilabete |

### Oharrak

Gainera, kostuak aurreztu daitezke ohiko sustapenarekin alderatuta



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



ENPRESARIALA

# La Sede

**DENA POSIBLE DEN EREMUA**

Travel Brilliantly, Marriott
www.travel-brilliantly.marriott.com

## Deskribapena

Edozein motatako ekitaldi, ikastaro edo erakusketa txiki eta ertainera egokitzen den egoitza berritzaile eta malguaren adibide ezin hobea. LASEDE hiritarren elkarbizitzarako eremu bizi bat da, kulturarekin, artearekin, gizartearekin eta arkitekturarekin hertsiki loturik dagoena. Lau solairutan banatutako 12.000 metroek balio-aniztasuna eta aukera amaigabeak eskaintzen dizkiote. Instalazioek eta haren konfigurazioak mota guztietako aurkezpenak, konferentziak, konbentzioak, simposium-ak, erakusketak eta azoka profesionalak egitea ahalbidetzen dute, baita eraikinetik kanpoko ekitaldiak ere.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Moldakortasuna
- Bertaratuen eta enpresa antolatzaileen asebetetzea
- Ekitaldien bereizkuntza

**Kostu ekonomikoa** **Ezarpen-denbora**

>9 hilabete

**Zailtasunak**

Etorkizuneko eraikuntzako eraikin eta egoitzetan aplikatu daitezkeen ideiak.



http://arquidia.files.wordpress.com/2013/02/lasede_coam.jpg

Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



ENPRESARIALA

# Hozkailu pertsonalizatua

**OSTATURA IRITSI AURRETIK, OSTALARIEK NAHI DUTEN JANARIA ESKATU AHAL IZAN DEZATELA**

Travel Brilliantly, Marriott
www.travel-brilliantly.marriott.com

## Deskribapena

Bidaiariak agenda estua duenean, presaka ibiltzen denean edo familia duenean, edo oinarrizko erosketak egitea gogoko ez duenean (esnea, ogia, ura eta abar), oso erabilgarritzat jotzen du establezimendura iritsi eta hozkailuan behar dituen produktu guztiak dituela ikustea, ohiko erosketak egiten "denborarik ez galdu" behar izanik.

Ostalariak hozkailuan aurkitu nahi dituen produktuak hautatu eta zerbitzu horren truke ordain dezake; horien artean, janari osasuntsuak eta produktuen sorta zabal bat aukeratu ahal izango du, horiek bere agendarekin konbinatuz (lan-bilerak nahiz piknikak, familiarekin edo lagunekin mendira ihes egiteko).

**Berrikuntza taktikoa**

- Bezeroaren gogobetetasun-maila hobetzea
- Salmenta eta salmenta gurutzatuen kopurua handitzea
- Edaritegia betetzeko kostuen optimizazioa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ● ○ ○ | ● ○ ○ <3 hilabete |

**Online erosketa-zerrenda txertatzea**

Hozkailua betetzeko eskaera bizkortu egin daiteke beharrezko produktuen hautaketa-inprimaki bat betetzen bada.




INSTITUZIONALA

# Marketin sentsoriala

**ETORKIZUNEKO TURISMO-BULEGOETAN NEUROMARKETINA TXERTATZEA**

Manchester
http://www.visitmanchester.com/articles/visitor-information-centre/

**Deskribapena**

Informazio Turistikorako Bulegoaren kontzeptua aldatzen ari da, hein handi batean, azken urteetan: XXI. Mendeko Turismo Bulegoa. Euskadin, adibidez, bi erreferente garrantzitsu ditugu: Loiuko aireportuan dagoena eta Bilboko Turismo Bulego berria. Aurrerapauso bat gehiago ematea proposatzen da, eta teknologiaren erabilera intentsiboaz gain, turismo-bulegoetan Euskadiko soinuak, irudiak eta usain klasikoak erabiltzea planteatzen da ohikoa eta berezia denaz are gehiago gozatzeko. Usainak eta soinuak aldatzen joango lirateke urteko eta eguneko momentuaren arabera.

**Berrikuntza estrategikoa**

- Esperientzia-maila handiagoa, usaimena eta entzumena txertatzen baitira
- Kokapen berritzailearen bereizkuntza
- Memoragarritasun handiagoa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ ■ □ | ■ ■ □ >6 hilabete |

**Erabilgarritasuna**

Esentzien enpresa ekoizle eta hornitzaileak bilatu beharko dira.




SEKTORIALA

# Meeting Architechture

**EKITALDIEN ERAIKUNTZA ADIMENDUNA**

Meeting Architecture
http://www.meetingarchitecture.com/

## Deskribapena

*Meeting Architecture* norabide berri bat da ekitaldien industrian; hura komunikazioen, edukien eta inbertsioaren itzulkinaren garrantzian oinarritzen da, eta ez horien alderdi logistikoan eta turistikoan. Ikuspegi honek ekitaldiak antolatzen dituzten enpresen eta norakoen balioa handitzen du, horien gaurkotasuna eta egokitasuna dela eta.

**Berrikuntza taktikoa**

- Ekitaldi adimendunak
- Kalitatea vs Kantitatea
- Inbertsioarekiko itzulkin handiagoa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■□□ | ■□□ <3 hilabete |

**Zailtasunak**

Metodologia berri honi buruzko prestakuntza



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



ENPRESARIALA

# Zuhaitz bat zure izenean

**ALOKATZEN DUZUN IBILGAILU BAKOITZEKO ZUHAITZ BAT LANDATUKO DUGU ZURE IZENEAN**

Driving Futures. 50 Million Tree Pledge
http://www.drivingfutures.com/programs-initiatives/50-million-tree-pledge/

## Deskribapena

Kontsumitzaileak gero eta gehiago kezkatzen dira ingurumenaren zaintzari dagokionez. Era berean, jarrera arduratsua izan nahi duten eta ingurumenean ahalik eta inpaktu gutxien eragin nahi duten bidaiarien ehunekoa etengabe handitzen ari da. Ekintza honen bitartez, eta ingurumenarekiko kezka helarazteko, zuhaitzak landatzen dira bezeroaren izenarekin, $CO_2$ xurgatzen duten eta $O_2$ sortzen duten landareak landatuz.

## Berrikuntza taktikoa

- Enpresen Gizarte Erantzukizuna
- Jasangarritasuna
- Posizionamendu berdea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ●●○ | ●●○ 3-6 hilabete |

## Oharrak

Ekintza Euskadin ingurumena berreskuratzeko egiten diren programekin lotzea izango litzateke egokiena.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute

SEKTORIALA

# Turismoari buruzko MOOC-ak

**EUSKAL ENPRESARIENTZAKO TURISMOARI BURUZKO PRESTAKUNTZA-ATARIA**

Witcamp
www.witcamp.com

## Deskribapena

Sektorearen aldetik etengabeko prestakuntza jaso beharrak eta joan-etorrietarako denbora murrizteko premiak online prestakuntzaren formatua errazten du. MOOC edo online ikastaro irekiak enpresek beren langileak doan eta modu interaktiboan prestatzeko modu bikaina dira. Gainera, plataformaren batekin adostasun batera iritsi eta Euskadiko sektorearentzat interesgarriak diren edukiak kargatu daitezke.

## Berrikuntza taktikoa

- Sektorearen lehiakortasun-estrategiarekin jarraitzea
- Kostuak txikiagotzea eta auto-ikaskuntza erraztea
- Atari propioa duen lehen erkidegoa

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●○ | ●●● <9 hilabete |

## Langileen kostuak

Aurreztu egiten da joan-etorriei eta prestakuntzan egin beharreko inbertsioari dagokionez



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute

NORAKOAK




INSTITUZIONALA

# Videotelling

## NORAKOAK BIDEO ETA ISTORIOEN BIDEZ SUSTATZEA

**Canarias 7Stories**
https://vimeo.com/hellocanaryislands

### Deskribapena

Bisitarien arteko bideo-kontsumoa izugarri hazten ari da. Gaur egungo joera nagusia kalitate oneko bideo-edukiak sortzea da, baina horiek *storytelling* teknikak gaineratu behar dituzte gogoangarriagoak eta emozionalagoak izan daitezen. Horrela, edukia haren kalitateagatik eta interesagatik hedatzen da, lotura emozional eta inpaktu handiagoa sortuz.

### Berrikuntza taktikoa

- Norakoari ukitu berritzailea ematen dio haren sustapena egitean
- Gako emozionalagoak txertatzen ditu sustapenean
- SEO errazten du hark duen gaitasun biralizatzailea dela eta

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ●●● | ●●○ >6 hilabete |

### Langileen kostuak

Lan gehiena hasierako etapetan sortzen da. Gero haren jarraipena egin behar da community manager baten aldetik.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



ENPRESARIALA

# Aurpegia ezagutzeko sistema

**AZOKA-MARKETINERAKO IRTENBIDEA**

Beabloo
http://www.beabloo.com/

## Deskribapena

Beabloo wi-fi sentsoreen bidez bisitarien aurpegiera hautematea ahalbidetzen duen sistema teknologiko bat da, baita haren jarrera, ibilbidea, errepikatze-maila, eta abar ere. Gainera, datu horiek aztertzen dituen sistema bat txertatzen du erabakiak momentuan bertan hartzea ahalbidetuz, emaitzak azoka edo erakusketa komertzial bateko helburuetara edo eskaintzara egokituz. Hark azoka-marketinaren eta ekitaldien antolakuntzaren gisako esparruetan erabakiak hartzen laguntzen duen azterketa-erreminta bat gehitzea ahalbidetzen du.

## Berrikuntza taktikoa

- Big data eta marketin mugikorra konbinatzen dituen berrikuntza erradikala
- Marketinera gerturatzen gaitu
- Sarbide-, irteera- eta erosketa-prozesuak bizkortzen ditu, besteak beste

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ ■ □ | ■ ■ □ <9 hilabete |

## Onurak

Kostuak aurreztea. Bereizkuntza. Arintasuna.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



INSTITUZIONALA

# Sare turistiko beganoa

**ZERBITZU TURISTIKO BEGANOEN ETA OBOLAKTOEN KATALOGOA**

Vegan Tourist
http://wtfveganfood.com/tourism/

## Deskribapena

Elikadura-gustu eta -premiak direla-eta bereizitako beste mikronitxo turistiko askotan bezala, beganoak eta obolakteoak beren erkidegoa egituratzen hasi dira Interneten, norakoak, jatetxeak eta merkatuak aholkatuz eta gomendatuz. Bere produktuen eta saltokien kalitatea dela-eta, Euskadi kontuan hartzeko moduko norakoa izan daiteke mota honetako bezeroentzat, beganoentzako turismo-izaerako ibilbide, katalogo edo eskuliburu bat osatuz.

## Berrikuntza taktikoa

- Balio erantsia
- Posizionamendua
- Bereizkuntza

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
| --- | --- |
| ■ □ □ | ■ ■ □ >6 hilabete |

## Erabilgarritasuna

Kasu honetan, Internetez egin daiteke sustapen osoa, kostuak murriztuz.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



SEKTORIALA

# Profil psikografikoa

**OSTATU HARTU DUEN HOTELA HOBETO AUKERATZEKO BEZEROARI EGINDAKO TESTA**

Joie de Vivre kudeatzen duen hotel-katea, Hotel Match Maker
www.finedesigngroup.com/creative/joie_de_vivre_hotels

## Deskribapena

Ostalariei ostatua bilatzen duten bitartean egiten zaien test bat da Hotel Match Maker erreminta. Bezeroei beren profil psikologikoarekin eta gustuekin bat datozen kateko hotelak gomendatzeko erabiltzen du hura Joie de Vivre kateak.

Test horretan gustuei, koloreei, musikari, pertsona dinamiko edo lasaiekiko kidetasunari eta abarrei buruzko galderak egiten zaizkie bezeroei. Testak definitutako parametroek emaitza jakin batzuk ematen dituzte, hau da, bezeroen nortasunarekin bat datozen hotelak, betiere horien asebetetze-maila areagotzeko helburuarekin.

## Berrikuntza taktikoa

- Lehiakideengandik bereiztea
- Bezeroaren gogobetetasun-maila hobetzea
- Baliabideak optimizatzea

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| ■ ■ □ | ■ ■ □ 6 hilabete |

## Hotel Indibidualak

Logelei ere aplikatu dakieke, ostalariak profilen eta lehentasunen arabera kokatuz.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute




## INSTITUZIONALA

# Euskal truck-food

**EUSKAL GASTRONOMIAREN FORMATU BERRIAK**

GastroPod Miami
http://www.gastropodmiami.com/

### Deskribapena

Estatu Batuetako "truck-food" delakoaren ereduari jarraituz, euskal oinarri tradizionaleko janari lasterreko jatetxearen kontzeptua definitzea proposatzen da, udalerriz udalerri, horiek ekitaldietara eta jaialdietara eraman ahal izateko. Formatu hori "estandarizatuko" balitz eta eskaintza gastronomikorik egokienari nahiz barneko ekipamendu eta diseinuari buruzko ikerketa egingo balitz, hark aprobetxamendu handia izan lezake jai, ekitaldi, bankete, kongresu eta abarretan.

### Berrikuntza taktikoa

- "Kasual" gastronomia euskalduna
- Dekorazio eta espiritu euskaldunak
- Kontzeptu gastronomiko berritzailea

**Kostu ekonomikoa** ●●●

**Ezarpen-denbora** ●●● >9 hilabete

### Zailtasunak

Hasieran inbertsioa egin behar da eskaintza gastronomikoa nahiz ibilgailu egokiena ezartzeko.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute



SEKTORIALA

# Robota

**EKIPAJEA BILTEGIRATZEKO SISTEMA**

T-Tech by Tumi luggage Lounge, Yotel www.yotel.com 570 Tenth Avenue, New York, EEUU

## Deskribapena

Ikuspegi berritzaile honek 150 atal ditu check-in prozesuaren aurretik edo check-out prozesuaren ondoren ostalariek beren ekipajea bertan utzi ahal izateko. Dibertigarria eta eraginkorra da, ekipajea kudeatzeko kontzeptu berri baten hasiera.

PIN kode bat eta abizena sartzean, Yobot robotak ostalariaren ekipajea biltegiratu eta hari agiri bat itzultzen dio zinta magnetiko baten bidez; Yobot robotak hura eskaneatzen du ekipajea hartzen duen momentuan, bezeroaren PIN eta abizena egiaztatuz.

**Berrikuntza taktikoa**

- Lehiakideengandik bereiztea
- Ostatuaren irudia hobetzen da
- Eremuen aprobetxamendua

| Kostu ekonomikoa | Ezarpen-denbora |
|---|---|
| | >9 hilabete |

**Langileen kostuak**

Langileek erabilitako denbora aurrezten da.



Ekintza guztiek kasu bakoitzean aplikagarria den indarreko legedia bete beharko dute

# 6. Autoebaluazioa

Enpresak berrikuntza-helburuak zehazten dituen eta **lehentasunezko jarduketa-eremuak nahiz xedatutako epeak eta baliabideak** definitzen dituen estrategia bat lantzen hasi ahala, nolabaiteko zentzua eta ordena emango zaie berrikuntza-jarduerei, era berean, epe luzerako ikuspegia lortuz (Cotec, 2007).

Azken atal honetan autoebaluaziorako hiru erreminta eskaintzen ditugu bere **gaur egungo egoera berritzaileari** buruzko hausnarketa-prozesua egin nahi duen agente turistikoak ezarri nahi dituen **ideiei lehentasuna eman** eta haren **jarraipena** egin ahal izan dezan.

# A) Gaur egungo egoera

| 1. Nire enpresan, honako hau da berrikuntza: | Prozesu esporadikoa ☐ | Estrategian txertatuta dago ☐ |
|---|---|---|

| 2. Lankidetza-maila berrikuntzarako honako informazio-iturri hauekin: | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 0 (Ez ditut erabiltzen) | 1 | 2 | 3 | 4 | Ezinbestekoak |
| Unibertsitateak eta prestakuntza-zentroak (CdT, ...) | | | | | |
| Hotel-elkarteak | | | | | |
| Institutu teknologikoak (ITH, ...) | | | | | |
| Administrazio publikoa | | | | | |
| Hotelaren zuzendaritza | | | | | |
| Bezeroen kexak/iradokizunak | | | | | |
| Bezeroen ohar informalak Lehiaren behaketa | | | | | |
| Beste sektore batzuetako puntako enpresen | | | | | |
| behaketa Enpresa hornitzaileen iradokizunak | | | | | |
| Langileen iradokizunak | | | | | |

3. **Langileek ideiak sortzeko pizgarriak eta funtzionamendu-egoera:**

(Adibidea: urte erdia igarotzen den bakoitzean bi egunetako bi pertsonentzako bidaia bat oparitzen zaio ideiarik onena eskaintzen duen langileari. Parte-hartze egokia: proposamen kopurua/urteko).

# A) Gaur egungo egoera

| 4. Gaitasun erabilgarriak | | | |
|---|---|---|---|
| Profila | Egungo egoera | Barneko erosketa | Kanpoko erosketa |
| Sortzailea | | | |
| Teknikaria | | | |
| Gestorea | | | |
| Zerrendatu kanpoko lankidetzen bidez estalitako profilak | | | |

| 5. Ekintzetarako aurrekontua | | | | |
|---|---|---|---|---|
| Ekintzak | Propioak | Publikoak | Kolaboratzaileak | Guztira |
| Aurrekontua | | | | |
| XX. ekintza | | | | |
| XX. ekintza | | | | |
| Estalitako aurrekontuaren % | | | | |

# B) Berrikuntzak ezartzean lehentasunak nola ezarri

Ekintza berritzaileak ezagutu ostean, nola jakin zein ezarri lehenengo? Taula hau ezarri beharreko ekintzen lehentasunak zehazteko erreminta bat da.

Lehenengo ekintzak, horien zailtasun-maila eta kostua zerrendatu behar dira, gero zailtasun eta kostu gutxien duten ekintzak ezartzen hasteko. Horretarako, 4. zutabean deskribatutako eragiketa sortu eta lortutako zenbakiak alderatuko ditugu, zenbaki txikiena duenetik hasteko (zailtasun eta kostu txikiena). 5. zutabean 4. zutabeko ekintzak gauzatzeko ordena idatziko dugu, txikienetik handienera.

**Lehentasunen taula**

| Ekintzak | Zaitasun-maila(10etik) | Kostua (10etik) | (5*ZM + 3*C)/10 | **Ezarpen-ordena** |
|---|---|---|---|---|
| XX. ekintza Yobot | 10 | 8 | (50+24)/10=7,4 | **2.** |
| XX. ekintza Show cooking | 3 | 2 | (15+6)/10=2,1 | **1.** |
| XX. ekintza | | | | |
| XX. ekintza | | | | |
| XX. ekintza | | | | |

Zailtasun eta kostu txikien duten ekintzetatik berritzen hasteko arrazoia "egiten hastearen" garrantzia da, pertsonen motibazioa areagotu egiten baita ekintzak gauzatzen ari direla ikustean (ekintza astunenetik hasiz gero motibazioa galdu daiteke), baita hobetzeko bidea abiarazi dela jakinarazteko ere.

# C) Ezarpena eta jarraipena

| **Ekintzaren zenbakia** | **Ekintzaren izenbura** | | |
|---|---|---|---|
| **Deskribapena** | | | |
| **Helburua** | | | |
| **Arduraduna** | Saila | Proiektuaren barne-ekipamendua | |
| **Balioetsitako ezarpen-denbora** | **Aurrekontua** | **Balioetsitako kostua** | |
| **Hasiera-eguna** | | | |
| **1.berrikuspen-data** | | | |
| Lortutako maila | Zailtasunak | Momentura arteko kostua | |
| Oharrak: (adibidea: langile gehiagoren partaidetza behar da, X langile esleitu) | | | |
| **2.berrikuspen-data** | | | |
| Lortutako maila | Zailtasunak | Momentura arteko kostua | |
| Oharrak | | | |
| **Azken data** | **Desbideratzea** | **Azken kostua** | **Desbideratzea** |
| **Lortutako emaitzak** | | | |
| **Hobetzeko iradokizunak** | | | |

# 7. Bibliografia


- Adams, R., Neely, A., Yaghi, B., & Bessant, J. (2008). Proposal for measures of firm-level innovation performance in 12 sectors of UK industry. *Innovation Index Working Paper*.
- Camisón, C., & Monfort-Mir, V. M. (2012). Measuring innovation in tourism from the Schumpeterian and the dynamic-capabilities perspectives. *Tourism Management*, *33*(4), 776-789.
- Decelle, X. (2004). *A conceptual and dynamic approach to innovation in tourism*. Paris: OECD.
- Digital IQ (2010) "Hotels digital IQ index. Wake up call" L2ThinkTank
- Henley Centre Headlight Vision (2007). Future Traveller Tribes. Las tribus viajeras del mañana 2020. Amadeus-ekin lankidetzan
- Hollanders, H., Es-Sadki, N. (2013) Innovation Union Scorecard, European Commission
- IPK International (2011). ITB World Travel Trends Report
- Jacob, M. (2004). *Pautas de innovación en el sector turístico balear*. Madril: Cotec.
- Law, R., & Jogaratnam, G. (2005). A study of hotel information technology applications. *International Journal of Contemporary Hospitality Management*,*17*(2), 170-180.
- Novelli, M., Schmitz, B., & Spencer, T. (2006). Networks, clusters and innovation in tourism: A UK experience. *Tourism management*, *27*(6), 1141-1152.




# 7. Bibliografia


- Orfila-Sintes, F., & Mattsson, J. (2009). Innovation behavior in the hotel industry. *Omega*, *37*(2), 380-394.
- Pivčević, S., & Petrić, L. (2011). Empirical Evidence on Innovation Activity in Tourism-The Hotel Sector Perspective. *The Business Review*, 142-148.
- Sabater, J. G. (2009). La transferencia de tecnología en la industria hotelera española. El papel de los proveedores de conocimiento como fuente de innovación. *Estudios turísticos, Instituto de Estudios Turísticos*, (182), 7-29.
- Sancho, A. (1991). Innovación en el sector túristico: perspectiva de pantentes
- ŢIGU, G., IORGULESCU, M. C., & Sidonia RĂVAR, A. (2013). THE IMPACT OF CREATIVITY AND INNOVATION IN THE HOSPITALITY INDUSTRY ON CUSTOMERS. *Journal of Tourism Challenges & Trends*, *6*(1).
- Wei, S., Ruys, H. F., van Hoof, H. B., & Combrink, T. E. (2001). Uses of the Internet in the global hotel industry. *Journal of Business Research*, *54*(3), 235-241.
- Williams, A. M., & Shaw, G. (2011). Internationalization and innovation in tourism. *Annals of Tourism Research*, *38*(1), 27-51.
- World Economic Forum (2011). Travel & Tourism Competitiveness Report




EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD

EUSKADI
BASQUE COUNTRY

BASQUE
TOUR

turismoaren
euskal agentzia
agencia vasca
de turismo